

**SI VIS PACEM
PARA ~~(BELLUM)~~ PACEM**

GERRARIK EZ (2025)

Esker onak

Esku artean duzun *Si vis pacem para (~~bellum~~) pacem* proiektua Arabako Gerrarik Ez taldean sortu zen eta Félix Placerren eta Gerrarik Ez taldeko kideen ekarpen interesgarriari esker.

Mario Unamuno arduratu da euskarazko itzulpenaz, beste itzultzaile batzuek lehenagotik zenbait idazle ospetsuri egindako itzulpenen laguntza eskuzabalarekin. Eskerrik asko horiei guztiei.

Lan ororen atzean dauden ideiak gauzatu egin behar dira, aldez edo moldez. Gure esker ona Iris Murillori, diseinu eta maketazio lanagatik, eta baita Hegoako Hezkuntza Lantaldeko kideei, ohar pedagogikoengatik.

Azkenik, eta hauxe ere inspirazio eta konpromiso iturri garrantzitsua, eskerrak eman nahi dizkiegu Emakumeok Gerraren Aurka ekimeneko lankideei, eta Gasteizkoak taldeari, beren ikerketengatik.

Material didaktiko hau Gasteizen osatu dugu, 2025eko martxoa.


Dokumentu hau *Creative Commons* lizentziarekin argitaratzen da. Obraren jatorrizko espiritua errespetatzen den bitartean eta iturria aitortzen denean, lan hau osorik edo zati batean kopiatu, banatu eta aldatu ahal izango da, eta eskertzen da hori egitea.

**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa**

Lan honek *Creative Commons* lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu

komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>



DOSIER TEORIKOA

Ikuspegi antimilitarista eta pazifista

GERRARIK EZ

Aurkibidea

SI VIS PACEM, PARA (BELLUM) PACEM	2
Si vis pacem, para (bellum) pacem unitate didaktikoa	3
Izenburua	3
Unitate didaktikoaren ezaugarriak	4
Fundamentazio sozial eta kurrikulurra	5
Si vis Pacem... unitate didaktikoaren helburuak	13
Helburu orokorrak.....	13
Helburu espezifikoak	13
Koherentzia kurrikularra gaur egun.....	14
Bakearen aldeko eta Indarkeriaren kontrako heziketa curriculumetan	14
Gaitasunak vs Konpetentziak: Hezkuntza-lanerako aukerak	14
Arau-erreferentziak European, Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan	14
Etorkizun gizatiarrago bateko pertsonak hezteko konpetentziak	15
Kultura demokratikorako konpetentzien Europako erreferentzia-esparrua.....	16
Curriculumaren antolaketa	16
Erreferentzia-esparrua: Espainiako estatua	17
Erreferentzia-esparrua: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)	18
Funtsezko konpetentziak.....	21
Edukiak	22
Metodologia, proposatutako jarduerak eta ebaluazioa	23
Metodologia	23
Proposatutako jarduerak.....	23
Ebaluazioa	24
OSAGARRIA	25

SI VIS PACEM, PARA ~~(BELLUM)~~ PACEM



Unitate didaktiko hau Gerrarik Ez / No a la Guerra elkarteak Globalizazio Nagusiaren aro honetan erakutsi nahi duen konpromiso aktiboan du jatorria. Izan ere, Ekialde Ertaineko gerrak, Ukraina eta Errusiaren artekoa eta gisako beste batzuk mundu zabalera hedatzeko arrisku bizia dago.

Unitate didaktikoaren xedea bi mundu gerren eta geroko aldien (Gerra Hotza batetik, 2008 eta 2024 arteko egungo aldia, bestetik) kausak, horietan jazotako gertaerak eta horien ondorioak aztertzea da, horren bidez egungo interpretazio-elementuak aztertzeko.

Aldian aldiko botere hegemonikoen hondoa jo ondoren gertatu ziren aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak aztertzen ditu unitateak, berebiziko arreta eginez interes geopolitikoaren eta konplexu militar/industrialen gorabeherei.

Horrenbestez, ezinbesteko galdera gakoak pizten dizkigu, esaterako: zein faktorek eragin dituzte halako gatazka handiak?, nola eragin diete gerrek gizarteei, giza-galera zein galera ekonomikoari dagokienez? Unitatea DBHko azken bi ikasturteetan eta/edo Batxilergoko lehenengoan joratzeko modukoa da.

GERRARIK EZ / NO A LA GUERRA

Si vis pacem, para (**bellum**) pacem unitate didaktikoa

DBHko 3. eta 4. ikasturteak eta/edo Batxilergoko 1.a

Unitate hau aurrerantzean osatu nahi dugun sorta bateko lehena da. Unitate didaktikoa bi modutan eskaintzen da, online (deskarga daiteke) eta inprimatuta, irakaskuntza-eragile inplikatuak nahi dutena balia dezaten; izan ere, horien lana izango da non eta nola erabili erabakitzea.

Iraupena: 2 aste, ikasgai bakoitzeko 3 ordu astean. Unitatea ikasgai hauetan balia daiteke: Geografia eta Historia, Hizkuntza atzerritarra (ingelesa), Kultura zientifikoa, Teknologia, Digitalizazioa, Pentsamendu autonomo eta kritikoaren garapena, Musika, Balio zibiko eta etikoetako heziketa, Hezkuntza plastikoa eta ikusizkoa. Oraingo honetan aurkeztu dugun moldean, hiru arlo hauetan balia daiteke: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia; Etika; eta Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa.

Zehar lerroak: Justizia ekosoziala, Feminismoa, Dekolonialitatea, Giza eskubideak.

Izenburua

*Si vis pacem, para (**bellum**) pacem* ("bellum" hitza urratuta agertzen da)

Esaldiaren egilea eta data: *Publio Flavio Vegecio, K.a. 390.*

*Bi bertsiotan aurkitu dezakezu (**online** zein **paperean inprimatuta**) unitate didaktiko hau, Bakeari eta Giza Eskubideei buruzko Hezkuntzari buruzko sorta bateko lehena. Baliagarria izatea espero dugu ikastetxeetan zein beste edonolako hezkuntza-zentrotan. Edukia modu argi eta funtzional batean egituratzen saiatu gara, eta, gorago esan dugun bezala, hainbat formatutara egokitzeko moduan. Oinarrizko Hezkuntzari begira Gerrarik Ezaren aldeko jardunbide zabalago baten lehen ale gisa aurkeztu nahi dugu unitatea.*

Unitate didaktikoaren ezaugarriak

Bertsio digitalean (webgunean) edo paperean inprimatuta aurkezten da.

- **Deskribapen orokorra:**
- *Diziplinarteko unitate didaktikoa da, DBHko 3. eta 4. mailetarako eta/edo Batxilergoko 1. mailarako diseinatua. Bi asteko iraupena du, inplikatzen dituen irakasgaietako bakoitzean astean hiru orduko jardunarekin, eta zehar-lerro hauek ukitzen ditu: Bakerako Hezkuntza, Antimilitarismoa, Feminismoa eta Dekolonialitatea (Dekolonialtasuna ere deitzen zaio).*
- *Unitate honek aztergai ditu gaur egungo gatazkak (bi mundu-gerrak, Gerra Hotza eta XXI. mendeko –arreta berezia eginez **Israel/Palestina-Gaza-Libano** eta **Ukraina-Errusia** gatazkei—, betiere arma-industriari eta geopolitika globalari buruzko ikuspegi kritiko batetik abiatuta.*
- *Kale Hezkuntzaren esparruan eta autoprestakuntzako zein eztabaida soziokulturala sustatzeko lantegi kritikoetan ere erabili daiteke, etorkizuneko erronkei buruzko ikaskuntzan, eta baita gaurko ziurgabetasunaren aurrean, betiere ikuspegi ahalduntzaile, kritiko eta antizipatibo batetik.*

“Tankerik ez da munduaren zoko honetan,
nahikoa izan zen isildu beharra”.

Ez gara lore-gerren zale.

Ez gara lehiatzen odol bila,

ez eta soroetan hil asmoz ere.

Gure lehia bizitzaren alde da,

eusten gaituen lurraren alde,

bizi gaituen oroimenaren alde.



Iturria: *La guerra florida* poemaren zatia. Egilea: Daniela Catrileo. (Itzulpena: Mario Unamuno).

Catrileo poeta maputxea da, txiletarra, feminista indigena, emakume kritikoa indarkeriaren eta gerraren aurka, erresistentzia indigena dekolonialaren konpromisotik abiatuta. Poema erresistentzia-gerrak dakarren agoniaren isla da; irudi benetan sendo bat darabil horretarako, “lore-gerrena”, alegia mexiken artean (Ertamerikako antzinako herria, gaur egungo Mexiko ingurukoa) ohikoak ziren gerra erritualak, presoak hartzeko asmo hutsarekin egiten zirenak, gero preso horien heriotza jainkoei eskaintzeko.

“Negozio handien arteko askok krimena sustatzen dute, krimenari esker bizi baitira. Munduak ez du sekula gaur egungoa bezain heriotza ekoiztera zuzendutako baliabide ekonomikoen zein ezagutza zientifiko eta teknologikoen metaketarik ezagutu. Munduari arma gehien saltzen dizkioten herrialdeak, horiexek arduratzen dira munduaren bakeaz. Herrialde horien alde, bakearen mehatxua ahultzen ari da; hodeitzar beltzak urruntzearekin

batera, berreskuratzen ari da gerraren merkatua, zeinean sarraski errentagarrien zantzu gozoak loratzen baitira. Arma-fabrikak su eta ke dihardute lanean, euren beharren arabera arerioak egiteko fabrikak bezainbeste”.

Iturria: *Patas arriba. La escuela del mundo al revés* (Eduardo Galeano), 119. or.

Itzulpena: Mario Unamuno.

“Den bezalako munduan, alderantzizko munduan, bake unibertsala zaintzen duten lurraldeak beste lurraldeei arma gehien fabrikatzen eta saltzen dietenak dira; banku arriskutsuenak narkodolar gehien garbitzen dituztenak dira eta lapurtutako diru gehien gordetzen dutenak; industriarik arrakastatsuenak planeta gehien pozoitzen dutenak dira; eta ingurugiroaren salbazioa ingurugiroa bera suntsitzen duten enpresen negozioerik bikainena da. Inpunitatea eta zoriona jende gehien ahalik eta denbora laburrenean hiltzen dutenek merezi dute, lanik txikienarekin ahalik eta diru gehien irabazten dutenek eta kosturik txikienean ahalik eta naturaren zatirik handiena sarraskitzen dutenek”.

Iturria: *Patas arriba. La escuela del mundo al revés* (Eduardo Galeano), 7. or.

Itzulpena: Estitxu Irisarri: *Hankaz gora (II)*; [esteka honetan](#).

Fundamentazio sozial eta kurrikulurra

Bakerako Hezkuntzaren, Antimilitarismoaren eta Armagintza-konplexuaren aurkako kritikaren garrantzia gaur egun bizi dugun Globalizazio Kapitalista eta Belizistaren testuinguruan

**“Gerra ez da politikaren jarraipena beste bitarteko batzuk baliatuta;
gerra negozioen jarraipena da, beste bitarteko batzuk baliatuta”**

Bertolt Brecht

(itzulpena: Mario Unamuno)

Bizi dugun Globalizazio Kapitalista eta Belizistaren testuinguru honetan, Bakerako Hezkuntza, Antimilitarismoa eta Armagintza-konplexuaren aurkako kritika zeregin premiazko eta funtsezko bihurtu dira hezkuntza-maila guztietan. Inperialismo ekonomiko hazkorrak eta gerra garaikideek desberdintasun ekonomiko eta sozialak iraunarazten dituzte, eta, horrez gain, indarkeria botere- eta kontrol-mekanismo gisa erabiltzea ahalbidetzen duen egitura globala sendotzen dute. Beharrezkoa dugu harremanak estutzea hezkuntzaren eta bakearen, feminismoaren, dekolonialitatearen eta giza eskubideen aldeko mugimenduen arteko lankidetzaren dinamizaketan.

1. Armagintza-konplexuaren eta kapitalismo globalaren indarkeria sistematikoa

Konplexu militar-industrial (AEBetako presidente ohi Dwight D. Eisenhowerrek kargua uzteko 1961ean eman zuen agur-hitzaldian erabili zuen lehen aldiz terminoa) da, gaur egun ere, hainbeste urte geroago, gatazka armatu globalen atzeko indar eragile handienetakoa bat. Gobernuak, armagintza-enpresak eta indar militarrek uztartzen dira konplexu horretan, zeinak elite ekonomikoari onura zuzena ematez gain, indarkeriaren zikloa iraunarazten baitu, gerra sustatzen baitu. Funtsezkoa da interkonexio horiek kritikatu eta argitzen dituen hezkuntza, baldin eta gatazken atzean dauden botere-dinamikak ulertzeko gauza diren herritarrek prestatu nahi baditugu, baldin eta aurre egin nahi badiegu gerra gatazka politiko edo ekonomikoak konpontzeko konponbide gisa normalizatzen duten logika militaristei.

Gaur egun bizi dugun globalizazio fasean, kapitalismoa sofistikatu egin da, eta mugaz gaindiko nazioarteko sare batean integratu ditu gerra- eta teknologia-industriak, halako moduan non etekinak ateratzen baitituzte gatazketatik. SIPRIren (Stockholm International Peace Research Institute) datuen arabera, gastu militar globalak 2 bilioi dolarerara iritsi ziren 2022an. Armagintza-konplexuaren hazkuntzan ikusten da, ondo baino hobeto, gerra, fenomeno geopolitikoa ez ezik, nazioz haraindiko negozioa ere badela, non giza bizitza eta egonkortasun globala etekinak maximizatzearen alde sakrifikatzen baitira.

2. Bakearen Hezkuntza, Gerraren Kulturaren aurkako erantzuna

Errealitate horren aurrean, Bakerako Hezkuntzak heziketa-erantzun integrala eskaintzen du, elkarriketa, gatazken konponbide baketsua eta justizia soziala sustatzen dituena. UNESCOk bakearen kultura sustatzearen garrantzia defendatzen du aspalditik, halako modukoa non indarkeriaren gaitzespena funtsezko ezaugarri sozialtzat joko baita. Halako hezkuntza moldeak bakeari buruzko ikaskuntza ez ezik, eguneroko bizitzaren jardunetan zein erabaki politikoetan bakea sustatzeko konpromiso aktiboa ere eskatzen du.

Pedagogia kritikaren kontzeptuan jorratzean, Paulo Freire hezitzaile brasildarrak hezkuntza ekintza politiko delako azpimarratzen zuen. Kontzientziarazioa eta ekintza eraldatzailea funtsezko bi ezaugarri dira hezkuntza-prozesu orotan, eta bakerako hezkuntzak zapalkuntza-egiturak –militaristak ere bai – identifikatzeko eta desafiatzeko beharrezko tresnez hornitu behar ditu ikasleak.

3. Feminismoa eta Bakerako Hezkuntza

Feminismoak errotiko kritika egiten dio militarismoari, gerrek eta gatazkek genero-desberdintasunak areagotzen dituztela eta emakumeen aurkako indarkeria betikitzen dutela azpimarratzen duen aldetik. Patriarkatua eta militarismoa berez eta senez lotuta daudela nabarmendu zuen bell hooks teorikoak, eta, bide beretik, indarkeria instituzionalizatua pertsonen (bereziki emakumeen) gorputzen eta bizitzaren gaineko kontrol patriarkalaren adierazpena delako.

Illo horretatik, feminismo pazifista indar sendoa izan da bakearen aldeko mugimenduetan, ez bakarrik gerren aurreko erresistentziari dagokionez, baita lankidetzara, zaintza eta elkartasuna sustatzen duten alternatiben eraikuntzan ere. Gatazka armatuek,

sarri askotan, emakume eta haurren kalterako egiten diren mundu honetan, bakerako hezkuntza feminista funtsezkoa da sexu-indarkeria zein indarkeria militarra iraunarazten duten hierarkiak desegiten saiatzeko.

4. Dekolonialitatea eta Justizia Globalerako Hezkuntza

Pentsamendu dekoloniala boterearen eta jakintzaren kolonialtasuna desegiteko beharraz mintzo zaigu, aintzat hartuta egitura horiek bizirik daudela, oraindik ere, sistema globalean, eta, bereziki, par Globalaren eta Hego Globalaren arteko botere-harremanetan. Dekolonialitate edo dekolonialtasun deituriko joera sustatu duten pentsalarien artean daude, esaterako, Aníbal Quijano, Walter Dignolo, María Lugones, Nelson Maldonado-Torres, Enrique Dussel, Silvia Rivera eta beste hainbat. Gerrek eta indarkeria militarrek Hego Globaleko nazioen esplotazio neokoloniala iraunarazten lagundu dute sarri askotan, eta mendetako inperialismoak eta kolonialismoak eragindako desberdintasun ekonomiko eta sozialak elikatu dituzte.

Bakerako hezkuntza dekolonialak atzerriko esku-hartze militarrek kritikatzeko gain, erresistentzia-bideak proposatzen ditu Hego Globaletik, tartean tokian tokiko jakintzak eta herri zapalduen epistemologiak. Ikuspegi horretatik, funtsezkoa da maila guztietako ikasleek ulertzea nola dagoen lotzen zaien militarismo garaikidea praktika kolonial historikoei, eta funtsezkoa dela ezagutzaren dekolonizazioa mundu bidezkoago eta ekitatiboago eraikitzeko.

5. Giza Eskubideak eta Antimilitarismoa

Azkenik, armagintza-konplexuaren aurkako borroka etuki lotuta dago giza eskubideen defentsarekin. Funtsean, gatazka armatuek oinarrizko eskubideak urratzen dituzte, bereziki bizitzeko eskubidea, eta duintasunez eta bakean bizitzeko. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren arabera, hezkuntzaren helburua "giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua" sustatzea da. Herritarrak jakin egin behar dute gerrek nola eskubide horiek urratzen dituzten, funtsezkoa da herritarrak zeregin horretan prestatzea, hartara haien aurkako ekintza militarista ororen kontra egiteko prest egon daitezen.

Beraz, gaur egun bizi dugun globalizazio kapitalista eta belikoaren fasean, Bakerako Hezkuntza, Antimilitarismoa, Feminismoa eta Dekolonialitatea ez dira aukera pedagogikoak, betebeharrak baizik.

Guztionezko bakearen, justiziaren eta giza eskubideen kultura eraiki nahi badugu, funtsezkoa da gatazka armatuen eta konplexu militar-industrialaren atzean diharduten interes ekonomiko eta politikoen azterketa kritikoa jorratzea. Ikuspegi horretatik begiratuta, hezkuntza funtsezko tresna bihurtu da gizartearen eraldatzeko; hezkuntzak gerrarik zein indarkeria sistemikorik gabeko mundu baten aukera eskaintzen die geroko belaunaldiei, bizitza eta giza duintasuna erabat errespetatuko duen mundu baten aukera.

Hori guztia bat dator **Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum** zehaztu eta **Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 DEKRETU**arekin, non hauxe esatean baita, hitzez hitz, 6. eta 7. artikuluetan:

“6. artikulua. – Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.

...7.– Arlo, ikasgai edo eremu guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, **bakearen aldeko hezkuntza**, osasunerako hezkuntza, sentsibiltate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, **jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza**, **elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa**, eta berdinen arteko kooperazioa.”

“7. artikulua. – Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak.

Oinarrizko Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar die ikasleei:

a) Beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzea, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzea.

e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak zentzu kritikoz lortze aldera. Oinarrizko kompetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.

f) Ezagutza zientifikoa zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.

m) Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.

n) Gizateriak dituen eta garapen jasangarrirako helburuetan zehazten diren arazo nagusiez jabetzea”.

“Si vis pacem, para **(bellum)** pacem”:

kolorezko pintzelkada matxinoak, Pedagogia Antimilitarista, Antibelizista eta Bakezalez zipriztinduak

Lamina pedagogikoek ausaz eginiko kolore-pintzelkaden antza izan dezakete, amaitu gabeko margolan batean hala moduz sakabanatutako orbanak balira bezala. Hurbiletik ikusita, pintzelkada zatikatu gisa agertzen zaizkigu, irregularrak, kolore- eta forma-leherketa txikiak balira bezala, lehen begiratuan elkarren artean deskonektatuak iruditzen zaizkigu. Alabaina, soa multzo osora zuzentzen badugu, orban horiek elkarrekin solasean hasten dira. Lehen begiratuan kaotikoa eta ulertezina zenak zentzua hartzen du: irudi bat azaleratzen da, zinean marra eta kolore guztiek osotasunarentzat ezinbesteko izan nahi duten.

Lamina hauen helburua ez da egia absolutuak inposatzea. Iradokizun eta probokazio izan nahi dute, pentsamenduari eta solasari leihoak ireki, betiere perspektiba berrien bila. Koadro inpresionisten gisara, hausnarketa aktibora gonbidatzen gaituzte, xehetasun zehatzen eta multzo osoaren artean hurbiltze eta urruntze jolas batera. Erakusten digute ezagutza ez dela eraikin monolitikoa, paisaia ñabardura, argi eta itzaletan aberatsa baizik, non zati bakoitzak lekua eta zentzua aurkitzen duen. Eta, baita, hezkuntza ikaskuntza konstruktibista jorratzeko aukera dela, ikaskuntza dialogiko pertsonal eta kolektibo baterako aukera.

Horregatik, lamina hauek ezin dira izan —ez dira— ariketa artistiko hutsak. Funtsean, pilula pedagogiko matxinoak dira, hazi txiki baina sendoak, gerra garaian ereindakoak, indarkeriak narratiba monopolizatzen duela eta itxaropenak gatazken zarataren artean desagertzen direla dirudien garaian. Ez dira soilik salaketa-pilulak, baita pilula pizgarriak, sustatzaileak, egoerei aurre hartzekoak... Ziurgabetasun eta etorkizunekin jokatu zaleak. Bake justuez mintzo zaizkigu, behetik —erresistentziazatik eta elkartasunetik— eraikitzen diren horizonteez.

Garai ilunetan, heziketa konformismo-arma bihur daitekeenean, pilula hauek insurgitzearen alde egiten dute. Pilula hauek ahanzturaren eta axolagabekeriaren aurkako ekintza errebeldeak dira, beldurraren logikari aurre egiteko keinu txikiak. Beste mundu batzuk irudikatzen gonbidatzen gaituzte, utopiak itxarotera, sinestera bakea ez dela soilik indarkeriarik eza, baizik eta justizia, ekitatea eta bizitza bete bat izateko eskubidea.

Horrenbestez, lamina hauek dei egiten digute. Koadro inpresionistetako pintzelkadetan bezala, beren indarra hutsaren hurrena eta funtsezkoa uztartzeko gaitasunean datza. Pintzelkada hauen balioa piztu nahi dituzten hitzetan eta egintzetan datza.

Pintzelkada horiek kritikoki behatzeko gauza bagara, izan gaitzela baita azalekotik barrenagora jotzeko gaitasuna sustatzeko gauza. Izan gaitzela oraindik ere posible dugun mundu baten kolore eta formak bilatzeko gauza. Izan gaitzela gauza bilatzeko mundu bat non marra bakoitzak koadro kolektibo bati lagunduko dion, non piluletako bakoitza itzalei aurre egin eta argia eta justizia eskatuko dituen itxaropen-eztanda izan dadin.

Arte inpresionistak ez du zuzenean ikusten duena islatzen, sentitzen duena baizik. Inpresionismoan, pintzelkada azkar eta itxura batean kaotikoak beste zerbait dira, egiaz, inguratzen duen munduari ematen dion erantzun errailetakoa, alegia. Era berean, gerraren makineriaren aurka altxatzen garenok ez dugu armak hobetzearen alde egiten, ezta indarkeriaren logikan sakontzeko ere; aitzitik, nola sendatu jakin nahi dugu, nola berreraiki, nola imajinatu etorkizun bat non zientzia bake-tresna izango den, eta ez suntsipen-tresna. Militarismoaren eta belizismoaren aurkako artista, hezitzaile zein zientzialariak aldaketaren alkimistak dira, izan daitezke, izan behar dugu: mundu zauritu baten lehengaia hartu, eta itxaropena, justizia, ekitatea eta bakea eman dezakeen zerbait bihurtzeko gauza.

Si vis pacem, para (~~bellum~~) pacem: malko-tantak eurtan

“Mundu zaharra hiltzen ari da, eta ez dator berririk. Argi-ilun horretan jaiotzen dira munstroak”

Antonio Gramsci

(Itzulpena: Mikel Ayllon, *Ez tiro egin anbulantziei* eleberrian).

SI VIS PACEM, PARA PACEM. BAKEA NAHI BADUZU, EGIZU BAKEAREN ALDE. Unitate didaktiko hau armak pilatzeko logikaren aurkako konpromiso kritikoa da, ezinezkoa irudikatu eta erreal bihurtzeko eskatzen duen samurtasun erradikala da. Lamina horiek oraindik osatzeke dagoen koadro baten pintzelkadak dira, itsaso inarrosi batean eroritako tantak, zein, ur-azala ukitze hutsarekin, uhinak sortzen baitituzte.

Bidegurutze historiko latza bizitza egokitu zaigu, benetan ematen baitu gizateria amildegiaren ertzean dabilela; ataka horretan, premiazkoa bezain ezinbestekoa dugu itun klasikoak biziberritzea, bai eta jaio berriei —agian ustekabea— argitara ateratzen bultzatzea. Itun berriak dira hezkuntzaren, komunikazioaren, artearen eta zientziaren artean, gerra- eta indarkeria-ekaitzak indarkeriaz, zapalkuntzaz eta esplotazioz eragin duen paisaia eraitsia arintzera datozen euriaren malko-tantak. Oihuka baino, xuxurla diharduten itunak, indar eraldatzailez beterik berriro datorkigun egia ahaztu baten oihartzunak balira bezala. Gure ustezko ahulezia armen aurkako indar sendo bihurtzera gonbidatzen gaituzten itunak dira. Ez dira hezkuntza-tresna hutsak; horrez gain, keinu poetiko eta politikoak ere badira, eta bake justu eta posibleen bila joateko bidea erakusten digutenak. Bide hori egitera gonbidatu nahi gaituzten lamina pedagogikoak dira.

Goikoak bakeaz mintzo direnean,
herri xeheak badaki
gerra piztuko dela.
Goikoek gerra madarikatzen dutenerako,
idatzita daude mobilizazio-orriak.

Alemaniar soldaduen kartilla, Bertolt Brecht
(Itzulpena: Mario Unamuno)

Hego gara

Non eseri esaten diguzu zuk,
baina ideiek altxarazi egiten gaituzte:
ibili, ekin, ez amore eman, ez atzera egin,
ikusi eta ikasi, belakiak xurgatzen duen era berean.
Inor ez da soberan, denok gara beharrezko,
denok denentzako, denok guretzako.
Amets handiak ditugu: inperioa erori dadila,
ozen oihukatzen dugu, beste aukerarik ez-eta.
Ez da utopia, baztertuen dantzaren,
zure eta nire dantzaren errebeldia alaia baizik
Altxatuko gara "nahikoa da" oihukatzeko
Ez Afrika ez Latinoamerika, ez daude salgai,
lohi, kasko edo arkatz bitartez, kalapitari aurre egingo diogu,
gizarte-lurrikara eragingo dugu gure putzu honeta.
Isildutako denak (denak)
Baztertutako denak (denak)
Ikusezin bihurtutako denak (denak)
Denak, den den denak
Denak, den den denak

Nigeria, Bolivia, Txile, Angola, Puerto Rico, Tunisia, Aljeria

Venezuela, Guatemala, Nikaragua, Mozambique, Costa Rica, Kamerun, Kongo, Kuba, Somalia, Mexiko, Dominikar Errepublika, Tanzania, yankirik ez Latinoamerikan Frantses, ingeles, holandarrak... Libre nahi zaitut, Palestina

Iturria: *Somos Sur*, [Ana Tijoux](#);

hemen abestiaren [hitzak](#) eta [bideoa](#) (biak gaztelaniaz).

(Itzulpena: Mario Unamuno)

Nahieran erabili daitezke laminak, bai eta horietako bakoitzaren inguruan iradokitzen diren galderak eta jarduerak, betiere irakasle eta/edo talde pedagogiko bakoitzaren interes eta ahalmenen arabera. Ez dira iradokizunak baino. Iradokizunak, margolan antimilitarista, antibelizista eta indarkeriaren aurkako bat osatzeko arrastoak balira bezala ulertu beharrekoak.

Hurrenkera jakin bat iradokitzen badugu ere, ez dago zertan hura jarraitu; galdera jakin batzuk iradoki ditugu, baina beste batzuk piztu daitezke; jarduera jakin batzuk planteatu ditugu, baina desberdinak bidera daitezke. 30 laminez ostutako sorta bat proposatzen dugu, baina ikaskuntza-komunitatea hobekien ulertzen duen eran artikulatu eta hautatu daitezke, aintzat hartuta bakoitzaren ahalmen analitikoa zein kontzientzia-sortzailea. Unitatea Hezkuntza Sistemara bideratuta dago, baina erabili daiteke baita Hezkuntza Ez Formalean, Kale Hezkuntzan, Komunikazio Ekimenetan eta abarretan... Azken batean, zuei dagokizue nola erabili erabakitzea, zuei, zaretela irakasle edo beste edonolako eremutan hezitzaile, zuei, eredu nagusiari aurre egin eta mundu errotik aldatzeko utopien bila zabiltzaten herritar. Zuei dagokizue, eta zuen esku da materiala ondoen deritzozen moduan baliatzea.

Ikuspegi kritiko batetik egina da, feminismitik, dekolonialitatetik, ekologismitik, lankidetzeta eta justizia sozialetik... Hitz gutxitan, GERRARIK EZaren konpromiso irmotik. Izan ere, GERRARIK EZ honetan pentsatzen dugu gaur egun ere, beti bezala, inoiz baino beharrezkoagoa dela erresistentzia itxaropentsua sustatzea errealitateari, non gerrak, inposaketak, arma-negozioek eta gerrako jauntxoek heriotza, suntsiketa eta eskubide indibidual eta kolektiboen urraketaren tragedia betikoari jarraipen ematen saiatzen ari diren.

Si vis Pacem... unitate didaktikoaren helburuak

Helburu orokorrak

- a. *Gaur egungo gatazkak ikuspegi kritiko batetik aztertzea.*
- b. *Arma-industriaren eraginari buruz hausnartzea.*
- c. *Bakearen aldeko zein beste mugimendu sozial batzuek (feminismoaren, dekolonialitatea, justizia soziala, ekologia) bakearen eraikuntzan duten zeregina ulertzea.*

Helburu espezifikoak

1. Gatazka garaikide jakin batzuen (mundu-gerrak, Gerra Hotza eta Vietnamgo Gerra, Israel/Palestina-Gaza, Ukraina-Errusia) kausak eta dinamikak ulertzea ikuspegi kritiko batetik.
2. Gerrak eragiten dituzten eta gatazka horietan arlo militarretik, teknologikotik eta armagintzatik harago diharduten faktoreen arteko harreman-komplexutasunaz jabetzea.
3. Interes geopolitikoak eta ekonomikoak aztertzea, bereziki arma-industriarenak.
4. Feminismoak eta dekolonialitateak bakearen eraikuntzan duten zereginari buruz hausnartzea.
5. Justizia ekosozialaren eta gatazka globalen arteko harremana aztertzea.
6. Arte-adierazpenaren bidez kritika- eta sormen-gaitasuna sustatzea.
7. Bakearen aldeko mugimenduek eta beste gizarte-mugimendu batzuek bakea eta justizia soziala bultzatzeko duten garrantzia arrazoitzea.

Koherentzia kurrikularra gaur egun

Bakearen aldeko eta Indarkeriaren kontrako heziketa curriculumetan

Ikuspegi beharrezkoa hezkuntza garaikidean

Bakearen aldeko eta indarkeriaren kontrako heziketa curriculumetan txertatzea funtsezkoa da gizarte bidezko, ekitatibo eta demokratikoagoak garatzeko. Nahiz eta gaur egun Europan, Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden curriculumak kompetentzien inguruan diseinatu diren, aukera ematen dute, hala ere, bakea, giza eskubideak eta bizikidetzaren inguruko balio eta printzipioak zeharka lantzeko ere.

Gaitasunak vs Konpetentziak: Hezkuntza-lanerako aukerak

Gaitasunetan oinarritutako curriculumen xedea pertsonen garapen integrala da, alderdi kognitiboak, etikoak, emozionalak eta sozialak integratuta. Ikuspegi horrek lankidetzaren, sormena eta partaidetza aktiboa sustatzen ditu. Berriz, konpetentzietan oinarritutako curriculumek zeharkako gaiak lantzeko aukerak ere eskaintzen dituzte —eta horien artean, besteak beste, Bakerako Hezkuntza—, emaitza neurgarrien bilaketara eta lan-merkatuaren eskaeretara bideratzera jotzen badute ere. Irakasleek espazio horiek balia ditzakete beren ikastetxeen helburuekin bat datozen proiektu diziplinarteko eta komunitarioak diseinatzeko.

Arau-erreferentziak Europan, Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan

1. Europako esparrua: Kultura Demokratikorako Konpetentziak

Kultura Demokratikoaren aldeko Konpetentzien Esparruak Bakerako Hezkuntzarako ikuspegi holistikoa eta zeharkakoa ahalbidetzen du, eta zenbait metodologia integratzen ditu, esaterako proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ikerlana, eta arazoaren konponbidea. Besteak beste, alderdi hauek nabarmentzen ditu esparru horrek:

Curriculumek lotura izan behar dute demokrazia, ingurumena, bakea eta gisako gaiekin.

Ikasleen partaidetza eta pentsamendu kritikoa sustatzeko metodo aktiboak jorratu behar dira.

2. Espainiako estatua: 217/2022 eta 243/2022 errege dekretuak

Bi dekretu horiek ikas-arlo guztietan zenbait gaitasun (hezkuntza emozionala, espiritu kritikoa, gatazken konponbide baketsua, etab) jorratzearen garrantzia azpimarratzen dute. Horrez gain, berebiziko garrantzia ematen diete bi ezaugarri hauei:

Ikastetxeen autonomia ikasgaiak malgutasunez antolatzeko eta komunitatearekin lankidetzaren proiektuak antolatzeko orduan.

Ikasleen prestakuntza, desberdintasun sozialei eta gatazkei ikuspegi enpatiko eta kritikoa batetik aurre egiteko gauza izan daitezten.

3. Euskal Autonomia Erkidegoa 77/2023 eta 76/2023 dekretuak

EAEko printzipio pedagogikoen zenbait baloreren (berdintasuna, iraungarritasuna, bakearen kultura, etab.), eta horrekin batera, baita: Herritartasun aktiboa eta arduratsua sustatzea, giza eskubideen errespetuan eta hausnarketa kritikoa oinarrituta.

Ikastetxearen hezkuntza proiektuetan Bakerako Hezkuntza eta indarkeriaren prebentzioa txertatzea, ikas-arlo guztietan integratuta.

4. Proposamen didaktikoak hezkuntza eraldatzaile baten alde

Arau-erreferentzia horietatik abiatuta, honako hauek sustatuko dituzten jarduerak diseina daitezke:

Arazo edo auzi errealetan (migrazioak, ura eskuratzeko aukera, gatazka armatuak, etab.) oinarritutako ikaskuntza, hainbat ikasgaietan jorrotutako ezagutzak integratuz.

Lankidetzaren proiektuak, ikasleak komunitatearekin konektatuko dituzten ekimenak, arazo sozialei ikuspegi baketsu eta solidario batetik heltzeko gaitasunetan prestatzeko.

Karpetak eta portafolioak, gogoeta kritikoa eta autoebaluazioa sustatzen duten ikaskuntza esanguratsuak biltzeko tresna egokiak.

Etorkizun gizatiarrago bateko pertsonak hezteko kompetentziak

Bakearen eta Indarkeriarik Ezaren aldeko Hezkuntza ez da soilik zeharkako eduki bat; horrez gain, konpromiso etiko eta pedagogikoa ere bada. Kompetentzietan oinarritutako ikuspegia lagungarria da, ez bakarrik egungo munduaren erronkak ulertzen laguntzeko, baita etorkizun bidezko, ekitatibo eta baketsuago baterantz eraldatzeko prozesuan aktiboki parte hartuko duen belaunaldi bat trebatzeko ere. Bakearen eta Indarkeriarik ezaren aldeko hezkuntza hezkuntza-curriculumetan.

Hori dela eta, Bakerako Hezkuntzaren, Hezkuntza Antibelizista eta Antimilitaristaren ikuspegi horiek tratatzeko elementu nahikoak aurki ditzakegu kompetentzietan oinarritutako gaur egungo curriculumetan, halako moduan non edozein irakasle edo lantalde pedagogikoak antola ditzake ikasgaietan zein zeharkako esparruetan, dela ikastetxeko proiektuetan, dela komunitateko proiektu zabalagoetan. Horrenbestez, ez dugu curriculumaren ikuspegitik zein ikas-arlo guztietatik azterketa xeharik aurkeztuko, zertzelada sorta bat bakarrik, ikuspegi horien garrantzia eta ahalmen pedagogikoa islatzeko adina zertzelada. Gainera, azpimarratu behar dugu ikastetxe bakoitzak bere Ikastetxe Planetik bideratu behar duela, curriculumari buruzko legediaren arabera (testu honen bukaeran sartu dugun Osagarrian beste erreferentzia batzuk aurkeztuko dizue).

Europar Batasuneko artikulazio pedagogiko eta didaktikoak osatzea ahalbidetzen duen oinarritzko esparru erreferente bat; Bakerako Hezkuntzaren erreferente espezifiko eta zeharkakoa izateaz gain, giza eskubideekin lotzen du.

Kultura demokratikorako kompetentzien Europako erreferentzia-esparrua

Curriculumak ikuspuntu desberdinetatik abiatuta osa daitezke, esaterako ikasleek eskuratu beharreko eza gutzetan oinarrituta, edo lortu beharreko kompetentzietan oinarrituta. Kultura Demokratikorako Gaitasunen esparrua bateragarria da era guztietako ikuspegiekin. Ikasketa-planak hainbat ikaskuntza-irakaskuntzako molde pedagogiko eta metodologikori bide emateko ere diseinatu daitezke, lan-proiektuetan zein zeharkako gaietan oinarrituta.

Curriculumaren antolaketa

Ikasketa-programa gisa ulertzen dugun neurrian, curriculuma irakasgai edo espezialitateen arabera antola daiteke, ikas-arloen, gaien edo zeharkako proiektuen arabera; horien esparruan, ikasleek Kultura Demokratikorako Kompetentzien ereduan deskribatutako kompetentziak eskuratuko dituzte...

Zeharkako kompetentzia eta gaien arabera. Zeharkako gaiak zerikusia izan dezakete “demokraziarako hezkuntza”, “ingurumenari buruzko hezkuntza” eta “bakerako hezkuntza” deritzen fenomeno edo gaiekin. Ikuspegi horren arabera, ikaskuntza-irakaskuntza ikuspegi holistiko baten moldean ulertzen dira, bizitza errealeko fenomenoetan eta kontuetan oinarritzen dira. Lehen urratsa ikasleen interesa piztuko duten galderak egitea edo arazoak planteatzea da. Ondoren, ikasketa-plana fenomeno edo auzi horien (esaterako “migrazioak” edo “uraren edo elikagaien hornidura”) inguruan egituratuko da, eta hainbat irakasgai integratuko dira horiek ikertzeko. Hauek dira curriculum mota berezi honetarako metodo pedagogiko egokienak: ikerkuntzan oinarritutako ikaskuntza, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuen bidezko ikaskuntza eta karpetak.

Giza duintasunaren eta giza eskubideen balioa

... giza eskubideak unibertsalak, besterenezinak eta zatiezinak dira; pertsona guztiei aplikatzen zaizkie, inolako bereizketarik gabe; oinarrizko babes-sorta gutxieneko bat eskaintzen dute gizakiek bizitza duina bizi ahal izatearen alde; eta funtsezko oinarria dira munduan askatasuna, berdintasuna, justizia eta bakea lortzeko. Beraz, balio multzo horrek honako hauek hartzen ditu baitan:

- 1. Pertsona guztiek gizateria bat eta bakarra konpartitzen dutela eta duintasun bera merezi dutela aitortzea, norberaren erreferente kulturalak, gaitasunak, inguruabarrak edo estatus pertsonala edozein direla ere;*
- 2. giza eskubideen izaera unibertsala, besterenezina eta zatiezina aitortzea;*
- 3. Egoera orotan giza eskubideak sustatu, errespetatu eta babestu beharra aitortzea;*
- 4. Egoera orotan oinarrizko askatasunak babestu beharra aitortzea, non ez duten gainerako pertsonen giza eskubideak urratzen edo erasotzen;*
- 5. Giza eskubideak gizartean berdintasun osoko bizikidetzaren oinarria direla onartzea, bai eta munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarria ere.*

Erreferentzia-esparrua: Espainiako estatua

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMLOE, 3/2020 Lege Organikoa) indarrean da 2020tik aurrera, eta *“haren neurriak pixkanaka aplikatzen ari dira, ikasturtez ikasturte, eta aurreikusten da 2023-2024 ikasturtean amaituko dela hura martxan jartzeko prozesua. 2022-2023 ikasturtean egin dira aldaketak Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko zein Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasturte bakoitiaren curriculumean; datorren ikasturtean, berriz, ikasturte bikoitietan ezarriko da.”*.

Espainiako estatuko curriculumak garatzeko dekretuetan sustatzen dira zeharkako ikuspegi hauek, esku artean duzun unitatearekin bat datozenak:

1.1 Balio Zibiko eta Etikoetan Oinarritutako Hezkuntza

- LOMLOEk eta estatu mailako curriculum autonomikoez ezartzen dute nahitaez txertatu eta landu behar direla ikas-arlo guztietan **balioetan oinarritutako hezkuntza**, halako modukoa non aintzat hartuko baititu **giza eskubideen, demokraziaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren** errespetua. Unitate honek ezin hobeto erantzuten dio ideia horri, indarkeriaren, militarismoaren eta injustizia sozialaren aurkako **kontzientzia kritikoa** sustatzen duen aldetik. Unitatea zuzen-zuzen lotzen zaio **munduko herritartasunaren** ikuspegiari, zeinak xede baitu bakearekin eta giza eskubideekin zein mundu bidezkoago bat eraikitzearekin konprometitutako gazteak prestatzea.

1.2 Genero-berdintasuna eta Hezkidetzak

- LOMLOEk **genero-berdintasuna** hezkuntza-curriculum osoan zeharkako gai gisa landu beharra nabarmentzen du. **Ikuspegi feminista** integratuko duen unitate didaktiko baten proposamena ikuspegi horrekin koherentea izateaz gain, gerra eta militarizazio testuinguruetan emakumeek pairatzen duten **genero indarkeria** eta **egiturazko desberdintasuna** jorratu beharri erantzuten dio. Emakumeek gatazka armatuetan eta bakearen eraikuntzan duten rola aztertzen duen neurrian, unitate hau bat dator genero-berdintasuna eta **hezkidetzak** sustatzeko zeharkako helburuekin.

1.3 Garapen Iraungarriko eta Munduko Herritartasunerako Hezkuntza

- **Iraungarritasunaren** (edo jasangarritasunaren) eta **Munduko Herritartasunaren** aldeko hezkuntza LOMLOEk beharrezkotzat jotzen duen zeharkako ikuspegia da, horien bidez ingurumenaren babesarekin eta arazo globalekin konprometitutako ikasleak prestatzeko. Unitate honek **arma-industriak** ingurumenean eta desberdintasun globaletan duen **eragina** lantzen du; horri esker, ikasleek gogoeta egin dezakete, gatazka armatuek eta egiturazko indarkeriak garapen iraungarriari nola eragiten dioten hausnartzeko. Gatazkek **justizia ekologiko eta sozialaren** ikuspegitik aztertzea bat dator zeharkako dimentsio horrekin.

1.4 Kulturarteko Hezkuntza

- Estatuko curriculumak **kulturarteko hezkuntza** sustatzen du, **kultura aniztasunarekiko errespetua** eta gizarte plural batean bizitzeko gaitasuna garatzeko nahitaezko zeharkako ikuspegi gisa. Kolonialismoaren eta neokolonialismoaren dinamikek gatazka garaikideak nola egituratu eta itxuratu dituzten ulertzen laguntzen du unitatearen ikuspegi dekolonialak, bai eta **egiturazko arrazakeriari** eta **hierarkia globalei** buruzko **kontzientzia kritikoa** sustatzen ere. Unitateak kulturarteko hezkuntzarekin duen loturak zapalkuntza-molde historikoak kolokan jartzeko aukera ematen die ikasleei, bai eta munduaren ikuspegi justuagoa eta pluralistagoen alde lerrokatzeko ere.

Erreferentzia-esparrua: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, unitate didaktiko honen helburuekin batera lerrokatzen dira DBHrako *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko maiatzaren 30eko 77/2023 DEKRETUAK* planteatzen dituen zeharkako irizpide eta ikuspegiak. Jarraian lotura eta harreman horiek azalduko ditugu

- 4.1 **Elkarbizitza eta Bake-kultura** Ikastetxearen hezkuntza-proiektuari buruz, hauxe dio Dekretuak: “herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu”. Horiez gain, modu transbertsalean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, **eta bake-kultura eta giza eskubideak**. Ikastetxearen estrategia digitala ere jasoko du”.
- **EAEko** curriculumak **Eskolako Elkarbizitz Plana** eta **Bake Kultura** sustatzen ditu zeharkako zutabe gisa. Unitate hau ikuspegi horrekin lerrokatzen da argi eta garbi, **antimilitarismoa** eta **gatazken konponbide baketsua** jorratzen baititu; izan ere, **bake-kultura** sustatzen du, gatazka belikoen analisi kritikoaren eta nazioarteko tentsioak konpontzeko alternatiba baketsuen bitartez. Ikuspegi horren helburua ikasleei **bitartekaritza-tresnak** eta gogoeta etiko garatzekoak eskuraraztea da, beren gertuko komunitateetan zein esparru globalean herritar aktibo eta **bake-eragile** izan daitezen.

2.2 Genero-berdintasuna eta Hezkidetzak

- Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumak arreta berezia jartzen du hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan, **Hezkidetzarako eta Indarkeria Matxistaren Prebentziorako Euskal Planak** irekitako bide beretik. Unitatearen **dimentsio feminista** –gatazka armatuek emakumeengan duten eragina aztertzen eta genero-ekitatea sustatzen duen aldetik– erabat lerrokatuta dago zeharkako ikuspegi horrekin. Gerraaldietan feminismoak jokatzen duen rola eta emakumeek bakearen eraikuntzan duten zeregina aztertzean, genero-berdintasuna ikaskuntza-arlo guztietan txertatu beharri erantzuten zaio.

2.3 Jasangarritasuna eta justizia ekosoziala

- EAEko curriculumak funtsezko zeharkako ikuspegizat jotzen du baita **jasangarritasun edo iraungarritasunerako hezkuntzari**. Unitateak dimentsio horri ekiten dio, batetik gerrek eta **konplexu militar-industrialak** duten ingurumen-inpaktua aztertzerakoan, eta, bestetik, **justizia ekosoziala** bakea lortzeko bide gisa sustatzen duenean Unitateak gerrek ingurumenari eta komunitate zaurgarriari nola eragiten dieten hausnartzera animatzen ditu ikasleak, halako moduan non kontzientzia kritikoa sortu nahi baitu gatazkaren, baliabideen ustiapenaren eta iraungarritasunaren arteko harremanari buruz.

2.4 Kulturarteko Hezkuntza eta Globalizazioa

- **Kulturarteko hezkuntza** ere zeharkako ikuspegi lehenetsia da euskal curriculumean; ildo horretatik, eta **ikuspegi dekoloniala** txertatuta, unitateak lagundu egiten die ikasleei kolonialismo historikoaren eta gatazka garaikideen arteko harremana ulertzen. Unitate honek **arrazakeria estrukturalari**, **neokolonialismoari** eta **justizia globalari** heltzeko aukera ematen du, hartara aniztasuna errespetatzen eta zapal dutako herriekiko elkartasuna sustatzen laguntzen duela. Gainera, botere-sistema globalek hango eta hemengo kulturei nola eragiten dieten ikuspegi kritikoa batetik aztertzen laguntzen du.



Funtsezko kompetentziak

- Konpetentzia sozial eta zibikoa.
- Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentzia.
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia digitala.
- Ikasten ikasteko konpetentzia.

Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

- **Konpetentzia sozial eta zibikoa:** gatazka globalak ulertzearen eta horien arrazoen analisi kritikoaren bitartez, hausnarketa etikoa eta konpromiso zibikoa sustatuko dira.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako konpetentzia:** adierazpen artistikoen azterlanak eta bakearen aldeko lan bisualen sormenak sentsibiltatea kultural eta estetikoa garatzea ahalbidetuko die ikasleei.
- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia:** egindako lanak ahoz ikaskideen aurrean azaltzeak eta talde-eztabaidek komunikazio- eta argudiatze-gaitasunak hobetzen lagunduko diete ikasleei.
- **Konpetentzia digitala:** Gatazken inguruko gorabeherak baliabide digitalen bitartez ikertu eta eduki multimedia sortzerakoan, ikasleek konpetentzia digitalak garatuko dituzte.
- **Ikasten ikasteko konpetentzia:** norik bere kasa hausnartzea eta ikerlanaren zein gatazken analisi kritikoaren bidezko ikaskuntza autonomoa sustatzerakoan garatuko da.



Edukiak

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- Herritartasuna eta mugimendu sozialak, bakearen aldeko presio-eragileak. Vietnamgo Gerraren analisia.
- Gatazka garaikideak: Israel/Palestina-Gaza eta Ukraina/Errusia kasuen analisia. Kasu horien aurrekari historiko, politiko, ekonomiko eta geopolitikoaren analisia.
- Kolonialismoa eta neokolonialismoa: nola baldintzatu dituzte indar kolonialek gaurko harreman geopolitikoak, bai eta horiek gatazka garaikideekin dituzten loturak ere.
- Arma-industria: arma-ekoizpenaren eragina eta armen salmenta gatazketan. Eragile nagusiak (armagintza-enpresak, gobernuak, bitartekariak) eta beren eragina gerrak betiereko iraunaraztean.
- Mugimendu bakezale (edo pazifistak) eta antimilitaristak: gerrari aurre egin dioten mugimendu sozialen historia, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.
- Feminismoa eta gerra: emakumeen rola gatazka armatuetan, indarkeriaren aurrean duten zaurgarritasuna, parte hartzea bakearen eraikuntzan eta mugimendu antimilitaristetan.

Etika eta Balioen Hezkuntza

- Bakearen aldeko kontzientziaren eta konpromisoaren —banakako zein taldekoa— garrantzia.
- Bakearen etika: bakearen balioari buruzko gogoeta indarkeriaren aurrean; indarkeriarik eza defendatu duten autoreen (Gandhi, Martin Luther King, bell hooks) eta pentsamendu-korronteen analisia.
- Justizia soziala eta giza eskubideak: gatazkak, oinarrizko eskubideen urratzaile eta desberdintasunen sustatzaile. Nazioarteko zuzenbideak biktimen babesean duen zereginari buruzko hausnarketa.
- Feminismoa gatazkaren aurrean: gerra egoeretan botere-harreman patriarkalen analisia; emakumeak, gerrako gatazken ondorioen neurritz kanpoko biktima.
- Elkartasunaren eta justizia globalaren etika: herritarrek nazioarteko elkartasunean eta etika globalaren eraikuntzan duten zereginari buruzko hausnarketa.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- Bakearen, konpromisoaren eta elkartasunaren aldeko artea.
- Gerra garaiko artea: Gerraren izugarrikeria, gerraren aurkako erresistentzia eta bake-irrika irudikatzen duten lan artistikoen (pintura, eskultura, argazkia) azterketa. Horren adibide, Picassoren *Guernica*, Banksyren Palestinari buruzko lanak, Robert Caparen gerra-argazkiak.
- Bake eta justizia globalari buruzko ikusizko proiektuak: ikasleek bakea eta justizia sustatzeko asmodun mural, kartel edo instalazioak sortuko dituzte. Obra horiek baliagarri izango zaizkie indarkeriaren zein gerraren gaitzespena adierazteko.

- Ikusizko kanpainak: ikasleek gatazka armatuen atzean dauden interesak salatzen eta justizia globala zein bakea sustatzeko kanpainak egingo dituzte.

Metodologia, proposatutako jarduerak eta ebaluazioa

Metodologia

Unitate hau ikasleen autonomia eta hausnarketa sustatuko duen metodologia kritiko, partaidetzazko eta dialogiko baten bidez garatuko da. Jarraian aipatuko ditugu tresna metodologiko nagusiak, herritarren erresistentzia erantzukizun etiko eta sozial gisa ulertzen duen ikuspegi kritiko eta konstruktibista baten arabera.

1. Ikerketa eta analisi kritikoa:

Ikasleek gatazkei buruzko datuak bilduko dituzte, eta informazio-iturriak aztertuko dituzte ikuspegi kritiko batetik.

2. Talde-lan kooperatiboa:

Talde txikietako lan egitea sustatuko dugu, iritziak konpartitzeko eta hainbat ikuspuntu aztertzeko aukera ematen duen formatua baita.

3. Adierazpen artistikoa eta sormena:

Ikasleek proiektu artistikoak sortuko dituzte gatazkei buruz hausnartzeko eta bakearen aldeko mezua zabaltzeko.

4. Solasaldi eta eztabaidak:

Gai polemikoak eztabaidatzeko espazioak sortuko ditugu, halako moduan non ikasleek argudiatzeko gaitasuna garatuko duten, eta pentsamendu kritikoa sustatuko.

5. Lankidetzaren, tokiko komunitatearen espazio sozialarekin eta mugimendu sozialetako sare aktiboekin:

Lankidetzaren dinamikak sortu eta sustatuko ditugu, eztabaidarako eta lankidetzarako guneak irekitzeko, ikasleei eztabaida soziokulturalean eta etikoan kolaboratzen laguntzeko.

Proposatutako jarduerak

1. Gatazken mapen osaketa:

Mapa infografikoak egitea, horien egungo gatazkek kokatzeko eta horien kausak eta ondorioak aztertzeko.

2. Artearen analisi kritikoa:

Gerraren aurkako artelanak aztertzea (*Guernica*, esaterako) eta taldeko hausnarketak antolatzea.

3. Bakearen aldeko ikusizko kanpainak:

Taldeka kartel, mural zein ikus-entzunezko materialak sortzea, gatazka armatuak salatzen eta justizia globalaren aldeko mezua zabaltzeko.

4. Eztabaidak eta simulazioak:

Gatazka diplomatikoen simulazioak, zeinetan ikasleek nazioarteko gatazken inguruan balizko konponbideak eztabaidatuko baitituzte.

5. Feminismoa eta gatazkak:

Emakumeek gatazka armatuetan duten zereginari eta bakeari egiten dioten ekarpenari buruzko ikerketa-proiektuak garatzea.

Ebaluazioa

Prestakuntzan oinarritutako ebaluazio jarraituko sistema proposatzen dugu, alderdi hauek kontuan hartuta:

1. Partaidetza- eta inplikazio-maila:

Ikasleek jardueretan erakutsitako interesa eta motibazioa.

2. Edukien ulermen-maila:

Gatazkei eta bakerako hezkuntzari buruzko kontzeptuak eta harremanak ulertzeko gaitasuna.

3. Adierazpen artistikoaren kalitatea:

Sortutako proiektuen originaltasuna, mezua eta inpaktua.

4. Gaitasun kritikoa:

Informazio-iturrien azterketa kritikoa eta iritzi propioak osatzeko gaitasuna.

5. Talde-lanaren ebaluazioa:

Talde-dinamika, lankidetzeta eta lortutako emaitzen kalitatea.

Ebaluazioa azken lau laminei buruzko lanketarekin erlazionatzea iradoki daiteke, lau horiek konexio zabalagoak osatzeko aukera eman baitezakete, aurreko lan guztiari dagozkionak. Nolanahi ere, hezitzaile-taldeari dagokio proposamen pedagogiko guztiarekiko ebaluazio koherentea egitea.

Ebaluazio horren barruan, ikasitakoa eta esperimendatutakoa laburbilduko dute ikasleek unitatearen azken egunean, bai taldeka, bai banaka. Galdera hauek erabili daitezke hausnarketarako:

- Zer ikasi duzu gatazka armatuen kausa eta ondorioei buruz?
- Nola eragin du unitate honek gatazken inguruan duzun ikuspegian?
- Zer aldaketa proposatuko zenituzke bakearen aldeko mugimenduetan?

OSAGARRIA

ESPAINIAKO ESTATUA

Estatuko oinarrizko curriculumetan ere bada unitate didaktikoa ukitzen duen erreferentziarik, DBHri zein Batxilergoari begira.

217/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzako antolamendua eta gutxieneko Ikasketak ezartzen dituen.

Hitzaurrea

"Aldi berean, legeak adierazten du idatziaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, gaitasun digitala, ekintzailera, **espirtu kritikoaren eta zientifikoaren sustapena, hezkuntza emozionala eta balioetan oinarritutakoa, bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko hezkuntza, sormena eta gisako beste gaitasun batzuk ikasgai guztietan landu beharko direla**".

7. artikulua.- Helburuak

d) Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria –bereziki, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTIfobikoa–, edonolako aurreiritziak eta portaera sexistak baztertzea.

e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko trebetasunak garatzea, eza gutza berriak zentzu kritikoz lortze aldera. Oinarrizko konpetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.

9. artikulua.- Laugarren ikasturtearen antolaketa

9.3 art.- *Ikasleek aukerako irakasgai bat edo gehiago ikasi ahal izango dituzte, hezkuntza-administrazioek ezarritako esparruaren arabera. Ikasgai horiek lan monografiko edo komunitateari zerbitzua emateko lankidetzaproiektu gisa eratu ahal izango dira.*

26.3 art.- *Zentroen autonomia Ikastetxeek autonomia izango dute taldeak eta ikasgaiak malgutasunez antolatzeko, bai eta ikasleen ezaugarrien arabera antolaketa-neurriak eta aniztasuna behar bezala kudeatzekoak hartzeko. Neurri horien artean, eremu bereko hainbat ikasgai elkarrekin eta batera eman ahal izateko antolaketa-molde didaktikoak ezarri ahalko dituzte, betiere hezkuntza-proiektuaren arabera eta hezkuntza-administrazioek xedatutako baldintzetan.*

Era berean, Errege Dekretuak ikasleek bizitzan zehar aurre egin beharko dieten erronka nagusiei erantzuteko eskuratu behar dituzten ikasketak adierazten ditu, besteak beste:

“- Espiritu kritikoa, enpatikoa eta proaktiboa garatzea , horren bitartez ekitaterik gabeko eta bazterketako egoerak detektatzeko, egoera horiek eragiten dituzten kausa konplexuen ulermenetik abiatuta.

- Gatazkak modu baketsuan konpondu behar diren gizarte-bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea“.

243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko antolamendua eta gutxieneko Ikasketak ezartzen dituena.

7. artikulua.- Helburuak

Batxilergoak kompetentzia hauek garatzen lagundu behar die ikasleei:

a) Herritartasun demokratikoa baliatzea, ikuspegi global batetik baliatu ere, eta Espainiako Konstituzioaren balioetan zein giza eskubideetan oinarritutako kontzientzia zibiko arduratsu bat eskuratzea, haren bitartez gizarte justu eta ekitatibo baten eraikuntzan erantzukidetasuna sustatzeko..

h) Mundu garaikidearen errealitateak, aurrekari historikoak eta bilakaeraren faktore nagusiak ezagutzea eta kritikoki baloratzea. Gizarte-ingurunea garatzen eta hobetzen elkartasunez parte hartzea.

18. artikulua.– Curriculuma

4. Beren autonomiaren jardunean, ikastetxeek hezkuntza-administrazioek ezarritako Batxilergoko curriculuma garatu eta —hala behar izatera— osatuko dute, betiere beren hezkuntza-proiektuaren barruan, zeinak herritartasun aktiboa gauzatzera bideratutako kompetentzia-ikasketaren berezko printzipioak, helburuak eta metodologia bultzatu eta garatuko ditu.

I. ERANSKINA

Batxilergoko funtsezko kompetentziak

Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentzia (STEM)

Matematikarako kompetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentziak (STEM kompetentziak, ingelesezko sigletan) mundua metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoa, teknologia eta ingeniartzaren metodoak baliatuz ulertzea dakar, hartara ingurunea modu konprometitu, arduratsu eta jasangarri batean eraldatzeko.

Zientziarako kompetentziak natura- eta gizarte-ingurunea ulertu eta azaltzeko ahalmena dakar berekin, betiere ezagutza eta metodologia multzo jakin bat erabiliz, zeinen artean baitaude behaketa eta esperimentazioa, hartara mundu naturala eta gizarte-testuingurua interpretatu eta eraldatu ahal izateko galderak egin eta probetan oinarritutako ondorioak eskuratzeko.

Teknologia- eta ingeniartza-kompetentziak baitan hartzen du zientziek berezko dituzten ezagutza eta metodologia aplikatzea, gure gizartea pertsonen beharren edo nahien

arabera eraldatzeko, betiere segurtasun-, erantzukizun- eta jasangarritasun-esparru batean.

Herritartasunerako konpetentzia (HK)

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

EAEko curriculumari dagokionez, DBHk barne hartzen duen Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan integratuta dauden alderdiak biltzen ditugu.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

6. artikulua.- Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak.

7.- Arlo, ikasgai edo eremu guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibiltate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko kooperazioa.

16. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.

2.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak berariaz jasoko ditu balioak, helburuak eta jarduketa-lehentasunak [...]; orobat, herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu. Horiez gain, modu transbertsalean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, eta bake-kultura eta giza eskubideak.

MAIATZAREN 30EKO 77/2023 DEKRETUAREN I. ERANSKINA.

IKASLEEN IRTEERA-PROFILA EAE-KO OINARRIZKO IRAKASKUNTZAREN AMAIERAN

Oinarrizko irakaskuntzako funtsezko konpetentzien deskribatzaile operatiboak

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)

Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.

76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

6. artikulua.- Batxilergoko etaparen printzipio pedagogikoak.

8.- Ikasgai guztietan, zeharka sustatu behar dira genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasun-hezkuntza, sentsibilitate estetikoa eta sorkuntza artistikoa, jasangarritasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrenganako errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarreraren eta portaeren prebentzioa, eta berdinen arteko lankidetzak.

20. artikulua.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.

2.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektuak berariaz jasoko ditu balioak, helburuak eta jarduketak-lehentasunak, eta eskumeneko sailean ezarritako curriculumak ikastetxean nola zehaztuko diren adieraziko du -Klaustroak finkatu eta onartuko du curriculumak zehazteko modua-; orobat, herritar aktiboak hezteko ikaskuntza konpetentzialak berezko dituen printzipioak, helburuak eta metodologia sustatu eta garatuko ditu. Horiez gain, modu transbertsalean landuko ditu balioetan oinarritutako hezkuntza, garapen jasangarria, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta diskriminaziorik eza, nesken eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, eskolako jazarpena eta ziberjazarpena, eta bake-kultura eta giza eskubideak.

MAIATZAREN 30EKO 76/2023 DEKRETUAREN I. ERANSKINA.

IKASLEEN IRTEERA PROFILA

Oinarrizko irakaskuntzako funtsezko kompetentzien deskribatzaile operatiboak

HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK) Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.



Irakasleentzako
unitate didaktikoa

Ikuspegi antimilitarista eta pazifista

GERRARIK EZ (2025)

Aurkibidea

1. diapositiba. Hitzaurrera eta gerraren aurkako konpromiso aktiboa	3
2. diapositiba. Mundu-gerren eta Gerra Hotzaren testuinguru historikoak.....	4
3. diapositiba. Haikuak eta gerra.....	5
4. diapositiba. Termino generatiboak eta gatazka garaikide jakin batzuk	6
5. eta 6. diapositibak: Gatazketan hildakoen estatistikak	7
7. diapositiba. <i>Aintza-bideak</i> filma	9
8. diapositiba. <i>Guerra</i> (Residente).....	10
9. diapositiba: Brecht eta Greenham Common.....	11
10. diapositiba. Vietnamgo Gerraren eragina iritzi publikoan.....	12
11. diapositiba. Konplexu militar-industrialia eta gaur egungo gatazkak.....	13
12. diapositiba. Genozidioa?.....	14
13. diapositiba. Onargarriak al dira Heriotzaren Industriaren azokak?.....	15
14. diapositiba. Emakumeak gerren aurka.....	16
15. diapositiba. SIPRI, CENTRE DELÀS, GASTEIZKOAK.....	17
16. diapositiba: Bakerako Giza Eskubidea.....	19
17. diapositiba. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH)	20
18. diapositiba. Nazio Batuen (NBE) Segurtasun Kontseilua	21
19. diapositiba. NATO	22
20. diapositiba. Heriotza eta bakea gerra-lubakietan	23
21. diapositiba. GERRARIK EZ.....	24
22. diapositiba. Blokeak Gerra Hotzaren garaian	25
23. diapositiba. Gerra emakumeen aurka.....	26
24. diapositiba. Emakumeak gerren aurka.....	27
25. diapositiba. Feminismoa gerren aurka.....	28
26. diapositiba. Banka armatua.....	29
27. diapositiba. Intsumisioa eta kontzientzia-eragozpena	31
28. diapositiba: Sahara, erresistentzia anticoloniala	33
29. diapositiba. <i>Mercado de la Muerte</i> , Javier de Villota-ren artelana.....	35
30. diapositiba: Gatazka ikusezinask, eta horien inpaktu globala	37
31. diapositiba: Gerra ekologikoa eta kapitalismoa.....	38
32. diapositiba: Teknologiaren eta hedabideen eragina gatazketan.....	39

1. diapositiba. Hitzaurrera eta gerraren aurkako konpromiso aktiboa



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer esan nahi du "Si vis pacem, para pacem, no bellum" esapideak gaur egun bizi dugun testuinguru historiko eta geopolitikoan? Nola lotzen da ideia hori gaur egungo gatazken egoerarekin?

Hausnartzeko gaia: nola eragin dezake globalizazioak Ekialde Hurbileko gatazka, edo Ukraina eta Errusiaren artekoa, beste eskualde eta herrialde batzuetara hedatzen?

Etika

Hausnartzeko esaldia: "Hilerrietako Bakerik ez; bai Justiziadun Bakeari". Zure ustez, zer behar dugu bake justu eta iraunkorra lortzeko?

Gizabanako garen aldetik, nola lagun dezakegu bake aktiboa eraikitzen, bake pasibo edo inposatua baten ordez?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sor ezazu "Justiziadun Bakea" kontzeptua irudikatzen duen poster bat. Zer elementu sinboliko erabili ditzakezu bake aktibo eta konprometitua adierazteko?

Sor ezazu "Bizitzarako Bakea, Eskubidez egina" ideia alderatzen dituen ilustrazio bat, "Hilerrietako Bakea" ideiarekin aurka. Zer kolore eta ikur aukeratu zenuzke ilustrazio hori osatzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Eztabaida kritikoa:** Ikasleak hainbat taldetan banatu ondoren, "Si vis pacem, para pacem, no bellum" esaldia aztertuko dute, **ikuspegi** historikoetatik, gaur egungoetatik eta utopikoetatik abiatuta. Talde bakoitzak bere aburuz ideia hori egungo testuinguru globalean nola aplikatu edo interpretatu daitekeen azalduko du.
- **Gatazka globalen analisia:** Egungo gatazken mapa egitea (Ekialde Hurbila, Ukraina-Errusia), eta —albiste-iturriak zein azterketa akademikoak baliatuz— funtsezko eragileak eta globalizazioarekin dituzten loturak identifikatzea.

Etika

- **Elkarrizketa-mahaia:** Taldean hausnartzeko gaia: zer esan nahi du "Justiziadun Bakea" ideiak? Adostu ezazue "Justiziadun Bakea" lortzeko beharrezko baldintzen zerrenda, erantzukizun indibidualak eta kolektiboak nabarmenduz.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Diseinu grafikoa:** Taldeka, posterrak sortzea: talde bakoitzak "Bake Aktiboa" kontzeptuarekin lotutako sinbolo edo kontzeptu bat integratuko du posterrean. Posterrak ikasgelan azaltzea, gainerako ikaskideen aurrean, eta transmititzen dituzten mezuak eztabaidatzea.

Irudiak: "Triunfo de la Muerte", Pieter Bruegel Zaharra (1525-1569) margolari flandestarraren lan ospetsua. 1562 inguruan margotua.

Testua: Geuk egina

2. diapositiba. Mundu-gerren eta Gerra Hotzaren testuinguru historikoak

SARRERA

Unitate didaktiko hau Gerrarik Ez / No a la Guerra albatuko Globalizazio Nagusaren aro honetan erakutsi nahi duen konpromiso altuarekin da jatorria. Izan ere, Ekialde Ertaineko gerrak, Ukraina eta Errusiarren artekoa eta gisako beste batzuk mundu zabalean hedatzeke arindu behar dira.

Unitate didaktikoaren askea bi mundu-gerren eta gerria alderi (Gerra Hotza barne, 2018 eta 2024 arteko egungo aldea, besteak) kausak horietan jasotako gertarak eta horien ondorioak aztertzea da, horien bidez egungo interpretazio-elementuak aztertzea.

Aldian aldiak botere hegemonikoek hondoa jo ondoren gertatu ziren aldaketak ekonomiko, sozial eta politikoak aztertzen dituztenak, bereziki armia eginez interes geopolitikoak eta konplexu militar-industrialek garatzen.

Horretaz, ezbesteko galdera gaitzak puzten dituzte, esaterako: zira faltsuak eragin dituzte balio gaitzak hartuak? Nola eragin dute gerrak gizarteak, eta gaitza zen gaitza ekonomikoak diziplina? Unitate didaktikoaren askea bi mundu-gerren eta gerria alderi (Gerra Hotza barne, 2018 eta 2024 arteko egungo aldea, besteak) kausak horietan jasotako gertarak eta horien ondorioak aztertzea da, horien bidez egungo interpretazio-elementuak aztertzea.

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Azter itzazu mundu-gerrak eta Gerra Hotza eragin zituzten arrazoiak. Zer nolako antzak eta aldeak ikusten dituzun batzuen eta bestearen jatorri eta ondorioetan?

Azterlana: nola lotzen dira XX. mendeko gatazkak eta gaur egungo tentsioak interes geopolitikoekin? Zer nolako eragina dute horretan guztian konplexu militar-industrialek?

Etika

Hausnartzeko gaia: gerren atzean dauden interesak. Nola eragiten diote interes horiek populazio zibilari?

Bidezkoa al da bakea interes geopolitiko eta ekonomikoak mende egotea? Justifika ezazu zure iritzia.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

XX. mendeko gatazka garrantzitsuenen denbora-lerro bat osatzea, bertan aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak nabarmenduz. Nola irudikatuko zenituzke artistikoki?

Egunkari eta aldizkarietako ebakinak erabiliz, diseina ezazu XX. mendeko gatazkek eragindako elementu geopolitikoak erakusten dituen collage bat.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Konparazio historikoa:** Tresna digitalak baliatuta (esaterako Padlet edo Canva), denbora-lerro elkarreragileak diseinatzea, mundu-gerren eta Gerra Hotzaren kausak, eragileak eta ondorioak barne hartuko dituenak.

Etika

- **Dilema etikoa:** Taldeka, hausnartzeko egoera: “XX. mendeko buruzagi politiko bat zara. Interes ekonomikoetan oinarritutako aliantza geopolitiko jakin bat babesten duzu, nahiz eta horrek gizakientzat dituen ondorioak jakin?” Talde bakoitzak bere erabakia defendatuko du.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Collage kritikoa:** Egunkari eta aldizkarietako ebakinak erabiliz, horma-irudi bisual bat sortzea, XX. mendeko gatazken atzeko interes ekonomiko eta politikoak erakutsiko dituenak.

Irudiak: Mikec (1997) Naif Museoa (Kroazia)

Testua: Geuk egina

3. diapositiba. Haikuak eta gerra

GERRAREN AURKAKO HAIKUAK

Haikua japoniar poesia molde tradizional bat da. Hamazazpi silabako hiru bertsoz osatzen dira, bosiz, zazpi eta bosiz silabako lerrotan antolatuta. Ikuspuntu formal batetik, haikuak bi zatitan banatzen dira. Zati bakoak baten baldintza orokorrak eta pismaren denbora: zein espazio-kokapena adierazten ditu (udazkena edo udaberria, kirolendarrak); bestetik, irudi bizi du, sugu-sagaitza, eta elementu aktibo bat izan behar du. Lehena deskriptiboa da, ia ia enuntziatiboa; bestea, aldiz, ustekabea. Pertzepzio poetikoa bi aldiz aritiko taldeak sortzen da. (Wikipedia)

"Ilan da gau hotza, guda amailluta, bizirik naiz oraino"
Hasegawa Sosei

Gari herdez soroa. Kontra argian, tanke bat dator.
Hino Soojoo

Itzultza: Mario Usumaro

俳句
Haiku




Hausnartzeko...

Hausnartzeko gaia: gerrari buruz, zer nolako irudia ematen dute haikuak?

Zer nolako emozio pizten dituzte, eta nola eragiten dute gatazkaren gaineko pertzepzioan?

Zergatik da garrantzitsua gerrari buruzko esperientziak eta horiek sorrarazten dituzten emozioak artistikoki adieraztea?

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Hausnartzeko gaia: aurkeztutako irudien eta haikuen arteko harremana. Gatazketako zein elementu historiko eta kultural identifika daitezke?

Aztertze gaia: nola lagun dezake poesiaren erabilerak —haikua, adibidez—, gerrek gizakiengan duten inpaktua ulertzen.

Etika

Hausnartzeko gaia: gerrari buruz, zer nolako irudia ematen dute haikuek? Zer nolako emozio pizten dituzte, eta nola eragiten dute gatazkaren gaineko pertzepzioan?

Zergatik da garrantzitsua gerrari buruzko esperientziak eta horiek sorrarazten dituzten emozioak artistikoki adieraztea?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Osa ezazu haiku bat, inspirazio-iturri gerra hartuta, eta lagundu ezazu olerkiaren sentimendua islatzen duen ilustrazio batekin.

Sor ezazu gerra-irudiak haikuen bertsoekin lotzen dituen ikusizko adierazpen bat. Zer kolore eta irudi hautatuko zenituzke?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Azterlan kulturala:** Azter ezazu haikuen jatorria, eta gatazka historiko jakin batzuetan (esaterako, Bigarren Mundu Gerran) Japoniako tradizioarekin izan duten harremana. Jar itzazu harremanetan haikuen irudi poetikoak gerra eta bake testuinguruekin.
- **Iturrien analisia:** Aurkeztutako haikuak aztertzea, argazki historikoekin batera, eta hitzen zein irudien arteko lotura eztabaidatzea, gerrak gizakiengan duen inpaktua ulertzen laguntzeko.

Etika

- **Poesiari buruzko eztabaida:** Binaka, hausnartzeko gaia: konpartitu elkarrekin haikuek sorrarazi dizkizuten emozioak, eta eztabaidatu, bien artean, zergatik artea gerraren izugarrikeriak adierazteko modu garrantzitsua den.
- **Hausnarketa bidezko sormena:** Haiku bat sortzea, bake-mezuren bat islatzen duena, edo gerraren aurrean erresistentziari buruzkoa.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Ikusizko poesia edo poesia bisuala:** Haiku bat inspirazio-iturri hartuta, artelan bat diseinatzea, haren esentzia emozionala irudikatzen duten koloreak, testurak eta sinboloak erabilita.
- **Collagea:** Bertsoak artxibo-irudiekin eta haikuen emozioak islatzen dituzten elementu grafikoekin konbinatzea.


Irukia: Haiku japonieraz idatzia

Testua: Gerrako haikuak. Seiko Ota eta Elena Gallegoren itzulpena. Hiperioia.

211 orrialde. 2016, erreferentzia eta iruzkinak in

<https://ariadnaggarcia.blogspot.com/2017/02/haikus-de-guerra.html>

4. diapositiba. Termino generatiboak eta gatazka garaikide jakin batzuk




Termino generatiboak...

Gerra Hotza	Muga berriak
Superpotentziak	Armasamentismoa
Biolekak	Genozidioa
Erabatiko anabasa	Ekozidioa
Suntsipen handia	Euste-politika (Truman doktrina)
Amaierarik gabeko gerra	Gerra nuklearra

Bikoteka, online ikerlanean
Jar ritazue harremanetan koadroko terminoak gertakari hauekin:

- Lehen Mundu Gerra
- Errusiar Iraultza
- Espaniar Gerra Zibila
- Bigarren Mundu Gerra
- Biolearen arteko gerrak
- Ashkenen nazionalismo gerrak
- Israel eta Palestina arteko gerrak
- Txinatar Iraultza
- Koreako Gerra
- Kubako Iraultza
- Kubako misilen krisia
- Vietnango Gerra
- Tibetiko Gerra
- Saharako Gerra
- Rwandariko genozidioa (hutu eta tutsi etnieen arteko gatazka)
- Algeriarango Gerra
- Ukraina eta Errusia arteko Gerra
- Gaza eta Libanoko genozidioa



4

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Azter ezazu proposatu dizugun zerrendako termino generatiboren bat, eta jar ezazu harremanetan gatazka historiko garrantzitsuren batekin. Zer eragin izan zuen termino horrek adierazten duen kontzeptuak garai hartako gizartean?

Gerra Hotzak nazioarteko blokeak sorrarazi zituen, eta eragina izan zuen herrialdeen arteko harremanetan. Azaldu ezazu nola eta zertan.

Etika

Hausnartzeko gaia: "Amaierarik gabeko gerra" kontzeptua. Zer eragin etiko du egungo eta etorkizuneko belaunaldietarako?

Zer esan nahi du "ekozidio" kontzeptuak?, nola lotzen da kontzeptu hori gatazka armatuekin? Zer dilema etiko planteatzen ditu?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sortu proposatutako termino generatiboetako batzuk (esaterako: "Suntsipen masiboa", edo "Muga berriak") irudikatzen dituen ilustrazio bat. Nola irudikatuko zenituzke?

Termino horiek gatazka historikoekin lotuko dituen kontzeptu-mapa diseinatzea, kategoria eta konexioak bereizteko koloreak erabilita.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Kasu-azterketa:** Termino generatiboetako bat aukeratzea (adibidez, "Suntsipen masiboa") eta gatazka jakin batean izan duen eragin historikoa aztertzea. Jorratutako lana multimedia-aurkezpenen bidez aurkeztea.

Etika

- **Mahai-ingurua:** Hausnartzeko gaia: "Amaierarik gabeko gerra" kontzeptua, gaur egungo gatazken testuinguruan. Ikasleei indarkeria-zikloak hausteko estrategia etikoak planteatzera gonbidatzea

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Kontzeptu-mapa:** Termino generatiboak eta gatazka historiko zein gaur egungoekin dituzten harremanak ilustrazio eta gaikako koloreen bitartez adieraztea.

Irudia: Leherketa nuklearreko onddo atomikoa
 Testua: Geuk egina.

5. eta 6. diapositibak: Gatazketan hildakoen estatistikak

1. XIX. mendeko aurreko gerrak
Hildakoak, guztira (hildako militarrek eta zibilak): 50 eta 100 milioi artean, gerra garrantzitsu guztiak kontuan hartuta (konkista-gerrak, erlijio-gerrak, gatazka inperialak, etab.).
2. 1800. urtetik Lehen Mundu Gerra arteko gerrak
Koalizioaren Gerrak – Napoleondar Gerrak ere detzen zate— (1803-1815):
Hildakoak, guztira: 3.5 eta 6 milioi artean
Hildako militarrek: 2.5 eta 3 milioi artean
Hildako zibilak: 1 eta 3 milioi artean
XIX. mendeko beste gatazka batzuk:
Hildakoak, guztira: 10 eta 15 milioi artean, kontuan hartuta
independentsia-gerrak, gerra kolonialak eta gerra zibila (gaitakez, Estatu Batuetako Gerra Zibila), bateratze-gerrak Europar, eta abar.
3. Lehen Mundu Gerra (1914-1918)
Hildakoak, guztira: 20 milioi inguru
Hildako militarrek: 8.5 eta 10 milioi artean
Hildako zibilak: 7 eta 12 milioi artean
4. Bigarren Mundu Gerra (1939-1945)
Hildakoak, guztira: 70 eta 85 milioi artean
Hildako militarrek: 21 eta 25 milioi artean
Hildako zibilak: 50 eta 55 milioi artean



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
Konpara itzazu zenbait gerra historikotan izandako hildakoen kopuruak. Zer nolako ereduak ikusten dituzu, eta zer ondorioztatzen duzu eredu horietatik? Aztertze gaia: Napoleondar Gerretatik gaur egungo gatazketaraino biktima zibilen kopuruak izan duen bilakaera. Zer faktorek azaltzen dituzte aldaketa horiek?


Etika

Hausnartzeko gaia: gatazka armatuen eragina gizakiongan.. Nola eragiten dio nazioen etikari biktima gehienak zibilak izateak? Justifikatu al daiteke gerretan heriotza zibilak izatea? Zergatik?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sor ezazu adierazpen grafiko bat (barra-grafikoa, diagrama, etab.), aipatutako gatazketan hildakoen kopuruak erakusteko. Sor ezazu, baita, zifren atzean dagoen giza

5. Gerra Hotzaren garaia (1947-1991)
Berez gatazka globalik izan ez zen arren, bai AEB eta SESB potentziak finantzatu edo babestutako gerra ugari.
Hildakoak, guztira: 10 eta 20 milioi artean
Hildako zibilak: gutxienez arteko % 50 eta % 70 artean
6. XXI. mendeko gatazkak
Hildakoak, guztira (hildako militarrek eta zibilak): 1.5 eta 2 milioi artean, kontuan hartuta, besteak beste, Afganistango Gerra, Irakeko, Siriako eta Yemeneko, bai eta Ukrainako gatazka.
Hildako zibilak: 500.000 eta 1 milioi zibil artean
Hildako militarrek: 500.000 eta 1 milioi artean
Zaurituak: Hamabai milioika pertsona, zibilak zein militarrek. Lekualdutsuak: 80 milioi pertsona inguruk aldatu behar izan du biztoa.



Lan-proposamena.
Bikoteka, adierazi zer iradokitzen dizkizueen datu horiek, eta idatzi testu txiki bat bion artean, gerran aurkako jarreraren oinarritua eta jarrera horrekin konprometua.

tragedia irudikatzen duten ilustrazioak.

Azkenik, sor ezazu XXI. mendeko gerretan izandako giza galeren tamaina sinbolizatzen duen instalazio artistiko bat.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Analisi estatistikoa:** Ikertze gaia: XIX. mendetik gaur egunera arte, zer nolako bilakaera izan du gatazka armatuetan hildakoen biktimen kopuruak? Sor itzazu hori adierazteko grafikoak, eta hausnar ezazu hortik ondorioztatzen diren eredu edo patroio historikoen inguruan.
- **Eztabaida historikoa:** Eztabaidatzeko gaia: nola aldatu dira gerra-estrategiak, nola eragiten diete biktima zibil eta militarrei; zer lotura du horrek guztiak armamentuaren modernizazioarekin.

Etika

- **Zenbaki bidezko enpatia:** Hausnartzeko gaia: nola adierazten dituzte zenbakiek giza bizitzak? Taldeka eztabaidatzeko gaia: zifrek gatazkak deshumanizatzeko edo horien inguruan sentiberatasuna pizteko duten gaitasuna.
- **Saiakera etikoa:** Testu labur bat idaztea, gai honen inguruan: gerretan edozein biktima-kopuru justifikatu al daiteke?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Infografia emozionala:** Irudi sinbolikoekin lagunduta, gatazketako biktimen kopurua modu zirrargarrian erakusten duen grafiko bat diseinatzea.

Instalazio artistikoa: Giza galeren tamaina transmitituko duen hiru adierazpen dramatizatua sortzea (erabilita, adibidez, irudiak, argiak, soinuak etab.).

5. diapositiba: Gatazketan hildakoen estatistikak

Irudia: Gernika 1937ko apirilean bonbardaketa jasan ondoren/ Getty in
https://cronicavasca.elespanol.com/politica/20220426/por-el-gobierno-de-espana-bombardeo-gernika/667933206_0.html

Testua: Berezko elaborazioak informazio horretatik abiatuta
https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Guerras_por_n%C3%BAmero_de_muertos
https://historia.nationalgeographic.com.es/a/victimas-segunda-guerra-mundial-coste-humano-por-paises_18206
https://es.wikipedia.org/wiki/Bajas_en_la_Primer_Guerra_Mundial

6. diapositiba: Gatazketan hildakoen estatistikak

Irudia: Geuk egina.

Testua: Berezko elaborazioak informazio horretatik abiatuta
https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Guerras_por_n%C3%BAmero_de_muertos
https://historia.nationalgeographic.com.es/a/victimas-segunda-guerra-mundial-coste-humano-por-paises_18206
https://es.wikipedia.org/wiki/Bajas_en_la_Primer_Guerra_Mundial

7. diapositiba. *Aintza-bideak* filma (*Paths of Glory* ingelesez, jatorrizko bertsoia; *Senderos de Gloria* gaztelaniaz), Stanley Kubrick zuzendariarena



Bere garaia aurre hartu zioen izan zen Stanley Kubrick; ospea eman zioten, nola estatu paregabeak, baita egin zituen filmen sakotasun psikologikoak ere. Bere libildide artistikoan esperimentazioa jo zuen Kubrickek, eta genero sorta zabal batean aritu zen, esaterako zientzifikozioan (horra hor 2001: espazio odisea filma, 2001: A Space Odyssey ingelesez) eta beldur psikologikoan (Distira, The Shining ingelesez). Bere lan guztien ezaguerri nagusiak zinematografia zaindua, narraitiba konplexuak eta hausnarketara gonbidatzen duten gai probokatrak dira.

Aintza bideak (*Paths of Glory* ingelesez; *Senderos de gloria* gaztelaniaz) Kubricken film antibeliko sendo eta serioa da. Lehen Mundu Gerran kokatua. Misio suzida bat egiteko agindu dieten agindu dieten soldadu frantses talde baten gorabeherak jarrizten ditu filmak. Misioen huts egin ondoren, soldadu taldeko hirun koldarkeria-salaketa leperatu diete bidegabe. Dax koronela (Kirk Douglasek interpretatua) jo eta ke arituko da indar guzietan bere gizonen alde, eta aurre egingo die botere militar zentzugabeari eta hierarkiararen ustelkerari. Gerraren bidegabekeria eta krudelkeriaren aurkako oihu desesperatu eta etsia da filma.

Oinarrian Humphrey Cobb-ek idatzitako eta 1935ean argitaratutako *Paths of Glory* eleberria du. Benetako gertakarietan oinarritutako liburu da, eta gerraren basakeria eta zentzugabekeria salatzen ditu. Esteka honetan gaztelaniazko azpiztituluekin ikusi daiteke filma: <https://ok.ru/video/1881553274362>

7

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Deskriba ezazu *Aintza-bideak* filmak erakusten duen Lehen Mundu Gerraren testuinguru historikoa. Gerraren zer alderdi nabarmentzen ditu filmak?

Aztertze gaia: nola islatzen ditu soldadu frantsesei buruzko filmak militarren ustelkeria eta boterea? Zure ustean, zer ideia zabaldu nahi ditu Kubrick zuzendariak?

Etika

Hausnartzeko gaia: *Aintza-bideak* filmak erakusten duen bidegabekeria. Zer dilema etikoei egin behar diete aurre filmeko protagonistek

Zer nolako eragina du protagonisten desobedientziak egitura militarrean? Zilegi al da beti erresistentzia jarrera agindu bidegabeen aurrean?

Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa:

Sor ezazu *Aintza-bideak* filmaren kritika antibelizista islatu edo adieraziko duen poster bat. Zer nolako kolore eta sinboloak erabiliko zenituzke mezua transmititzeko?

Soldaduek agindu bidegabeen aurrean bizi duten barne-borroka islatuko duen ilustrazio bat sortzea. Nola adieraz ditzakezu soldadu horien emozioak eta etsipena?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Zinema eta kritika historikoa:** Aztertze gaia: aztertu filmaren eszena gakoetako batzuk, eta eztabaidatu nola islatzen duten Lehen mundu Gerrako soldaduen errealitatea.

Etika

- **Dilema etikoak:** Hausnartzeko gaia: zer nolako erabakiak hartu dituzte protagonistek bidegabekeriaren aurrean? Zer alternatiba etiko planteatuko zenituzke gaur egungo ikuspegitik?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Poster-diseinua:** Stanley Kubricken filmaren kritika antibelizista laburbiltzen duen kartel artistiko bat sortzea, mezua sendotuko duten sinbolo eta koloreak baliatuz.

Irudia: *Senderos de Gloria*, Kubrick, 1957 in <http://www.muvim.es/va/content/senderos-gloria-stanley-kubrick-1957>

Testua: Geuk egina

8. diapositiba. *Guerra* (Residente)



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer erreferentzia historiko eta gatazka armatu aipatzen ditu Residentek *Guerra* abestian? Deskriba ezazu labur nola eragin dituen gerrak gizarte ukituak.

Aztertze gaia: nola saltzen ditu abestiak gerrak populazio zibilari eragiten dizkion ondorioak Zer ondorio sozial eta lurraldeko dituzte gerrek, Residenteren abestiaren ikuspegitik ikusita?

Etika

Nola planteatzen da gerra arazo etiko gisara Residenteren *Guerra* abestian? Hausnartzeko gaia: giza sufrimendua eta urratutako eskubideak, abestiaren narratibaren arabera.

Abestian gatazka belikoen biktimizekiko enpatia islatzen da. Zer balio etiko sustatzen ditu Residentek bere letraren bidez, eta nola kontrajartzen zaizkio balio horiek gerra baten testuinguruari?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Deskribatu gerrako bideoklipetan Bizilagunek erabiltzen dituen baliabide ikusizko eta sinbolikoak.

Nola laguntzen dute elementu horiek gerraren aurkakoz mezua ematen?

Aztertze gaia: nola indartzen dute bideokliparen erritmoak, musikak eta irudiek abestiaren letraren inpaktu emozionala? Zer nolako sentsazio edo emozioak piztu nahi dituzte ikusleengan?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Abestiaren hitzen analisia:** Aztertu Residenteren *Guerra* abestiaren hitzak, erreferentzia historikoak eta geopolitikoak identifikatuz. Lotu erreferentzia horiek aipatutako gatazken testuinguruekin.
- **Gatazka-mapa:** Sor ezazu mapa interaktibo bat: adierazi itzazu bertan abestian aipatzen diren lekuak, eta lotu itzazu horietako bakoitzaren haien historia hurbilarekin.

Etika

- **Hausnarketa-mahaia:** Aztertze gaia: abestiak transmititzen dituen emozioak. Zein neurritan izan daiteke musika gerraren aurkako kontzientziak mobilizatzeko bide etikoa?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Bideoklip sinbolikoa:** Sor ezazu *storyboard* delako bat, abestiaren balio etikoak islatuko dituena.
- **Salaketa-collagea:** Diseina ezazu abestian aipatzen diren gatazken irudiak eta abestiko esaldiak konbinatuko dituen ikusizko collage bat.

Irudia: Bideoaren fotograma, hemen: https://www.youtube.com/watch?v=Zl_GIPquEII

9. diapositiba: Brecht eta Greenham Common



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Iker ezazu *Women for Life on Earth* (Lurreko Bizitzaren aldeko Emakumeak) ekimenak Erresuma Batuko politika nuklearrean izan zuen eragina. Zer aldaketa eragin zituzten emakume horiek? Zer adierazten du Bertolt Brechten poemak?

Etika

Hausnartzeko gaia: Greenham Common ekimeneko emakumeen konpromisoa. Zer arrisku pertsonali egin zieten aurre, eta zerk bultzatu zituen? Pentsamendua eta Etika al dira indarkeriaren zein gerren aurkako bi indar handiak? Zer iritzi duzu aurreko galderaren inguruan?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sor ezazu arma nuklearren aurkako emakumeen borroka eta martxa irudikatzen duen ikusizko instalazio bat. Zer material erabil ditzakezu emakume horien ausardia islatzeko? Diseina ezazu horma-irudi bat, Bertolt Brechten beste poema hau ilustratzeko:

Iristear den gerra ez da lehena izango. Izan da lehenago ere gerra gehiago.
Azken gerra amaitu zenean, garaileak eta garaituak izan ziren.
Garaituen artean, herri xehea
goseak jota bizi zen. Garaileen arteko
herri xehea ere goseak jota bizi zen.
Bertolt Brecht (Itzulpena: Mario Unamuno)

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Borroken eraginari buruzko ikerlana:** Ikertzeko gaia: Greenham Commoneko emakumeen mugimendua, eta haren eragina Erresuma Handiok politika nuklearretan.
- **Konparazio historikoa:** Aztertze gaia: Brechten poema, militarismoaren aurkako borroka garaikideekin harremanetan jarrita.

Etika

- **Elkarrizketa-mahaia:** Hausnartzeko gaia: Greenham Commoneko emakumeek beren gain hartutako arrisku pertsonalak, eta bakeari egin zioten ekarpen etikoa.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Horma-irudi kolektiboa:** Taldean, horma-irudi bat osatzea, non Brechten poemaren zenbait bertso mugimendu antimilitaristaren irudi eta sinboloekin konbinatuta.

Testua: <https://www.antiwarsons.org/canzone.php?lang=it&id=8131>

https://www.hegoa.ehu.eus/mapa_paz/inglaterra.html

10. diapositiba. Vietnamgo Gerraren eragina iritzi publikoan



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Aztertzeko gaia: nola eragin zuen Vietnamgo Gerraren estaldura mediatikoak gatazkaren pertzepzio publikoan? Zer alde dago egungo estaldura mediatikoarekin?

Deskriba ezazu nola eragin zuen Estatu Batuetako eta Europako presio sozialak Vietnamdik tropak erretiratzeko erabakian.

Etika

Hausnartzeko gaia: iritzi publikoaren boterea gerra garaian. Bidezkoa al da gobernuek muzin egitea herritarren ahotsari?

Zure ustean, manifestazioak eta intsumisioa erresistentzia-modu baliozkoak izan al ziren Vietnamgo Gerraren aurrean? Arrazoiak itzazu erantzunak.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sor ezazu protesta-kartel bat, Vietnamgo Gerraren aurkako mugimenduan oinarrituta. Zer kolore, sinbolo eta esaldi erabiliko zenituzke?

Sor ezazu propaganda militarren eta Vietnamgo soldaduen errealitatearen arteko tentsioa erakusten duen ilustrazio bat. Nola irudika zenitzake alde biak?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Analisi mediatikoa:** Iturri digitalak baliatuz, konpara itzazu Vietnamgo Gerraren eta gaur egungo gatazken estaldura mediatikoa.

Etika

- **Rol-jokoa, eztabaida publiko baten simulazioa:** Irudika ezazue soldaduak Vietnamdik erretiratzeari buruz bere garaian egin ziren eztabaidetako bat, ikasleen artean holako eta halako rolak esleitura: gobernuko kideak, aktibistak, komunikabideak.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa


- **Protesta-kartela:** Diseinatu gerraren aurkako mugimenduetan oinarritutako posterrak, esaldi eta sinbolo zirraragarriak erabiliz.

Irudiak: Neskatoa ihesean napalmekin egindako eraso baten ondoren (@Nick Ut); Nguyen Ngoc Loan Hego Vietnamgo jenerala Viet Cong-eko soldadu bat exekutatzeko (@Eddie Adam).

<https://www.nytimes.com/es/2020/02/19/espanol/opinion/fotografia-tragedias.html>

https://historia.nationalgeographic.com.es/a/ejecucion-saigon-foto-guerra-vietnam-que-ganopulitzer_15070

11. diapositiba. Konplexu militar-industrialia eta gaur egungo gatazkak



Non hasten da gerra?

Estatu Batuetan, "konplexu militar-industrialia" esamoldeak gobernu estatubatuararen, bere indar armatuen eta defentsa-industriaren arteko harreman estu eta elkarren menpekoa adierazten du. Dwight D. Eisenhower presidentek zabaldu zuen kontzeptua 1961ean, agurero hitzaldian; bertan, politika nazionalan eragin zezakeen industria militar boteretsu baten arriskuez ohartarazi zuen.

Ordutik aurrera, konplexu militar-industrialak hazi besterik ez du egin: gobernuak kontratu izugarri aberatsak eskaini dizkie Lockheed Martin, Raytheon, Boeing eta beste enpresa batzuei. Lotura horrek Estatu Batuen ekonomiari, politikari eta herrialde horiek mundu zabalean duen eragin-indarari eragiten die; izan ere, defentsa-industria enplegaren zein teknologia aurreratuaren iturri handienetako bat da herrialde horretan.

Ukraina eta Errusiako gatazkan, Estatu Batuetakoak dira arma-enpresa nagusiak: Lockheed Martin, Raytheon, Boeing, Northrop Grumman eta defentsaren alorreko beste enpresa eraldid batzuk adierazten dituzko armak eskuratzen dituzko Ukrainari; esaterako Javelin misilak eta Patriot aire-babes sistema. NATOren beste aliatu batzuek ere asko lagundu dute, baita Europar Batasuneko herrialdeek ere; hor daude, esaterako, oraindik ere kide ez den Turkiako Bayraktar dronak, eta Mendebaldeko Europako zenbait artilleria sistema. Errusiak ere, bestalde, bere aliatuengana jo du, Iranera, esaterako, dronak eta irismen laburreko misil balistikoak kartzeko, baita bere defentsa enpresetara ere (Almaz-Antey eta Kalashnikov Concern, besteak beste Ukrainan erabiltzeko arma astunen bita.

11

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Deskriba ezazu nola eragin duen Estatu Batuetako konplexu militar-industrialak gaur egungo nazioarteko gatazketan, esaterako Ukraina eta Errusiaren artekoan.

Laminan ikus dezakezun liburuaren izenburuan hitz-joko bat ezkututzen (edo ageri) da. Zein da hitz-joko hori?, zer nolako harremana du hizpide duen familiarekin?

Etika

Hausnartzeko gaia: armak ekoizti eta merkaturatzearen ondorio etikoak. Zer dilema moral dakartza berekin armak ekoizteak eta merkaturatzeak?

Gerraren testuinguruan, bereizi al daitezke interes ekonomikoak eta humanitarioak? Kontraesanean al daude interes mota biak?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Egizu marrazki bat, SAPA arma-industriak egungo gatazketan izan dezakeen eragina irudikatzen.

Nola sinboliza zenitzake gerren atzean dauden interes ekonomikoak?

Diseina ezazu gobernuen eta arma-industriaren arteko interdependentzia islatuko duen kartel kritiko bat. Zer irudi erabiliko zenituzke?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Kasu-azterketa:** Aztertze gaia: konplexu militar-industrialak gaur egungo gatazketan (esaterako, Ukraina eta Errusia artekoan) duen eragina, datu ekonomiko eta politikoak baliatuta.
- **Eztabaida:** Eztabaidatzeko gaia: nola eragiten die gerra-ekonomiak erabaki politiko globalei?

Etika


- **Hausnarketa:** Hausnartzeko gaia: etikoa al da ekonomiak arma-industriaren mende egotea?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Kartel kritikoa:** Diseina ezazu arma-industriaren eta politikaren arteko harremanak ilustratuko dituen kartel bat, ikusizko metaforak baliatuz.

Irudia: <https://halabedi.eus/es/antonio-escalante-andoaingo-sapa-enpresa-militarrak-badaki-inpunitatea-duela/>

12. diapositiba. Genozidioa?



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Aztertze gaia: nola aldatu dira Palestinaren eta Israelen lurraldeak 1947tik hona? Zer faktore geopolitiko eta belikok eragin dute aldaketa horien gainean?

Deskriba itzazu lurralde-aldaketa horiek Palestina eta Israelgo populazioetan izan ituen ondorio demografiko eta sozial garrantzitsuenak.

Etika

Hausnartzeko gaia: zer inplikazio etiko dituzte Palestinako lurraldea murriztea ekarri duten erabaki politiko eta militarrek? Zer giza eskubide ukitzen dituzte erabaki horiek?

Nola jokatu beharko luke nazioarteko komunitateak Israel eta Palestinaren artekoa bezalako okupazio- eta lur-gabetze-gatazken aurrean? Zein printzipio etiko lehenetsi beharko liriteke negoziazioetan?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Azter itzazu mapak: nola eragiten dute koloreak eta konposizioak lurralde-gatazkan pertzepzioan? Zure ustez, zer mezu transmititzen da lurraldearen irudikapen grafikoaren bidez?

Israel eta Palestinaren egoerari buruzko artelan bat sortu beharko bazenu, nola irudikatuko zenuke lurralde-galera eta horrek herritarrengan duen eragina? Zer ikus-elementu erabiliko zenituzke bake-edo erresistentzia-mezuak helarazteko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Lurralde-analisia:** Aztertze gaia: nola aldatu dira Palestinaren eta Israelen mapak 1947tik hona? Jar itzazu harremanetan aldaketa horiek kausa eta ondorio sozialekin.
- **Eztabaida kritikoa:** Hausnartzeko gaia: egokia al da “genozidio” terminoa Palestina eta Israelen arteko gatazka deskribatzeko?

Etika

- **Talde-eztabaida:** Hausnartzeko gaia: Palestina eta Israelen arteko gatazkan urratutako giza eskubideak. Nola erantzun beharko luke nazioarteko komunitateak?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Artelan sinbolikoa:** Sor ezazu gatazkan pertsonen eguneroko bizimodua duen eragina adieraziko duen artelan bat.

irudia: <https://www.newtral.es/territorio-israel-palestina/20231010/>

Testua: <https://www.lamarea.com/2024/06/14/defensa-estrecha-lazos-comerciales-con-lockheed-martin-que-acaba-de-acordar-la-entrega-de-25-aviones-de-combate-a-israel/>

<https://www.europapress.es/internacional/noticia-israel-firma-acuerdo-eeuu-compra-25-cazas-35-20240604193903.html>

13. diapositiba. Onargariak al dira Heriotzaren Industriaren azokak?

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer nolako rola dute defentsa-azokek ekonomia globalean? Zein herrialde izaten dira gehien erosten eta saltzen dutenak azoka horietan?

Aztertze gaia: gobernu eta enpresen partaidetzak arma-industrian, nola eragin diezaieke nazioarteko harremanei eta egonkortasun geopolitikoari?

Etika

Zure ustean, etikoa al da nazioarteko azoketan armak promozionatu eta saltzea? Hausnar ezazu horrek mundu-bakearen gainean izan ditzakeen ondorioen gainean.

Gobernuek murriztu egin beharko ote lukete beren partaidetza defentsa-industrian? Azal ezazu zergatik, eta zer eragin izan dezakeen horrek gizartean.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begiratu irudia eta hausnartu argazkigintzak arma-industria irudikatze duen balioaz. Zer ikusizko mezu transmititzen du irudiak armamentismoari buruz, eta nola berrinterpretate liteke ikuspegi kritikoa transmititzeko?

Arma-industriaren ondorioez kontzientziatzeko ikusizko kanpaina bat sortu beharko bazenu, zer elementu ikusizko eta sinbologia erabiliko zenituzke jendearen arreta erakartzeko, eta jendeagan nolabaiteko inpaktua eragiteko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Ikerlan ekonomikoa:** Aztertze gaia: defentsa-azokek ekonomia globalean jokatzeko duteen rola, eta horrek dituen inplikazio geopolitikoak.
- **Eragile nagusien azterketa:** Identifika itzazu azoka horietan arma gehien erosten eta saltzen dituzten herrialdeak.

Etika

- **Eztabaida etikoa:** Hausnartzeko gaia: nazioarteko azoketan armak erakutsi eta promozionatzeko ondorioak.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Ikusizko kanpaina:** Diseina ezazu arma-industria kritikatu duen eta bakearen aldeko alternatibak sustatu dituen poster bat.

Irudia: <https://es.euronews.com/video/2024/06/17/inaugurada-en-francia-la-exposicion-de-armas-eurosatory-la-mas-grande-del-mundo>

Testua: <https://www.nferias.com/defensa/>

14. diapositiba. Kolaborazio publiko eza Heriotzaren Industriarekin Emakumeak gerren aurka



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zenbateko garrantzia du politika publikoek arma-industriarekin lankidetzan aritzear uko egiteak, garapen iraunkorra eraikitzeko orduan? Zer eragin izan dezake erabaki horrek gizartean? Iker eta azter ezazu zenbait mugimendu sozialek —esaterako Emakumeok Gerraren Aurka / Mujeres Contra la Guerra— bideratutako protestek gobernu-politiken eragiteko duten gaitasuna. Nola eragin dezakete mugimendu horiek ekonomia eta politikaren alorretan?

Etika

Etikoa al da sektore publikoak zuzenean edo zeharka arma-ekoizpena finantzatzea? Hausnartzeko gaia: industria militarri laguntzeko funts publikoen erabilerak berekin dakartzan dilema etikoak. Zer printzipio etiko defendatzen ditu irudian aipatzen den legeak? Nola laguntzen diete ekimen horiek justizia soziala eta bakea sustatzen?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begiratu arretaz diapositiban ageri diren ikus-elementuak. Nola transmititzen da armen aurkako mezua konposizio bisualaren bidez? Zer ondorio ditu zuri-beltzaren eta objektuen erabilerak irudian? Diseinatu kartel alternatibo bat, heriotzaren industriari lankidetzara publikoa ukatzearen alde. Zer kolore, sinbolo eta konposizio erabiliko zenituzke arma-ekoizpenaren aurkako mezua sendotzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Tokiko ikerlana:** Aztertze gaia: euskal erakundeek industria militarrean duten inplikazioa eta jarduera horri bila dakizkikeen alternatiba etikoak.

Etika

- **Hausnarketa-foroa:** Eztabaidatzeko gaia: gobernuak zein herritarrek arma-industriaren finantzaketari uko egiteko duten erantzukizun etikoa.


Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Kartel alternatiboa:** Diseina ezazu kusizko kanpaina bat heriotzaren industriarekiko lankidetzara publikorik eza sustatzeko, kolore eta sinbolo zirrargarriak erabiliz.

Irudiak: Juanjo Celorio. Emakumeok Gerraren Aurka (EGA), Eusko Jaularitzaren aurrean

Testua: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-4866

15. diapositiba. SIPRI, CENTRE DELÀS, GASTEIZKOAK...: IKERKETA-EGINTZA ANTIMILITARISTA ETA PAZIFISTA



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zein da SIPRI, Centre Delàs eta antzeko erakundeen zeregina industria militararekin eta armagabetezarekin lotutako informazioaren azterketan eta zabalkundean? Nola eragiten du erakunde horien lanak erabaki politikoetan?

Aztertze gaia: tokiko ekimen antimilitaristek — esaterako, Gasteizkoak— bakearen aldeko mugimendu global baten osaerari egiten dioten ekarpena. Zein zailtasun nagusiri egiten diete aurre?

Etika

Zer dilema etiko planteatzen dituzte tokiko enpresek —esaterako, SAtlantis enpresak— teknologia militarra garatu eta merkaturatzen dutenean? Zer erantzukizun du gizarte zibilak egoera horretan? Hausnartzeko gaia: armagabetearen aldeko ikerketa-- eta ekintza-lana egitearen garrantzia. Zergatik da garrantzitsua ikuspegi etiko batetik gatazka armaturik gabeko mundu bat sustatzea?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begiratu arretaz diapositibaren ikus-elementuak. Zure ustez, zer eragin dute mezu antimilitarista eta pazifistaren komunikazioan erabiliko irudi eta sinboloek? Zure ustez, zergatik hautatu dira elementu horiek diapositibaren diseinuan?

Diseina ezazu kartel bat, SIPRI, Centre Delàs, Gasteizkoak eta antzeko erakundeen arteko lankidetzari irudikatzen duena, armagabetea eta bakea sustatzeko. Zer kolore, sinbolo eta mezu erabiliko zenituzke erakunde horien lanaren garrantzia nabarmentzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Kasu-ikerketa:**

Ikertze gaia: SIPRI (Stockholm International Peace Research Institute), Centre Delàs eta antzeko erakundeen lana, eta lan horrek armagabetearen sustapenean duten eragina.

Taldeka, identifika ezazu erakunde horiek gatazka armatuak edo gastu militarra aztertzen edo salatzen lagundu duten kasu jakin bat, eta azal ezazu horren gaineko ikerlanaren emaitza ikaskideen aurrean.

- **Tokiko ekimenen mapagintza:**

Aztertze gaia: Gasteizkoak erakundearen rola tokiko mugimendu antimilitaristan. Informazio horrekin, osa ezazu mapa bat, bakearen alde diharduten talde lokalen eta globalen arteko konexioak eta harremanak erakusten dituena.

Etika

- **Dilema etikoak ikerlan eta egintza antimilitaristan:**

Hausnartzeko gaiak: Zer erronkei egiten diete aurre erakunde horiek, interes ekonomiko eta politiko globalen aurka egiten dutenean? Etikoa al da gobernu jakin batzuek ekimen antimilitaristak alde egitea eta, aldi berean, arma-industriari parte hartzen jarraitzea?

- **Eztabaida etikoa:**

Rol-jokoa: rol desberdinak ikaskideen artean banatuta (gobernuaren ordezkariak, arma-enpresen ordezkariak, eta ekintzaile pazifistak), eztabaidatu industria militarrek munduko bakean duen eraginari buruz.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Kartel kolaboratiboa:**

Diseina ezazu kartel bat, SIPRI, Centre Delàs, Gasteizkoak eta antzeko erakundeen arteko lankidetzaren irudikatzen duena, bakearen, justiziaren eta armagabetzearen aldeko sinboloak erabilita.

- **Instalazio artistikoa:**

Ikus-elementuak eta testuak uztartuta, sortu mugimendu antimilitaristaren ahaleginen inguruko instalazio bat. Adibidez, gastu militarrei buruzko datuak objektu sinbolikoen (txanponak, kartoizko armak, etab.) bidez irudikatuta.

- **Infografia:**

Diseinatu infografia bat diseinatzea, erakunde horien lanak gatazka armatuen murrizketan duen eragina azaltzeko, kolore eta grafiko deigarriak erabiliz.

irudiak: <https://gasteizkoak.org/> <https://centredelas.org/> <https://www.sipri.org/>

16. diapositiba: Bakerako Giza Eskubidea

Bigarrenik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak berak, 28. artikuluan, oinarri oso garrantzitsua ematen du bakerako eskubidea giza eskubide gisa aitortzen duela baieztatzeko. Hauxe dio artikuluko horrek: "Pertsona orok du eskubidea halako ordena sozial eta nazioartekoa ezar dadin, non Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak era eraginkorren garatuko diren".

Bakerako Giza Eskubidearen Aldarrikapen Unibertsala

1. artikulua. - Titularrak

1. Pertsonak, taldeak eta herriek bake zuzen eta iraunkorra izateko eskubide besterenezina dute. Bakea da mundu osorako onartutako giza eskubide guztiak balitzeko baldintza, baita garapenerako eta ingurumenerako eskubideak ere.

2. Bakerako giza eskubidea besterenezin, unibertsal eta zotezina da, beste eskubide batzuekin harremanetan dago, eta horiek elkarrenpekitasunezko harremanak ditu. Bakerako giza eskubidea inolako berezikeriarik zein diskriminaziorik gabe ezarri behar da.

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer eginkizun du Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak bakearen sustapenean? Azter ezazu nola eragin dezakeen dokumentu horrek gatazken konponbidean.

Zer lotura ditu bakerako eskubideak beste giza eskubide batzuekin, esaterako garapenerako edo ingurumenerako eskubideekin?

Etika

Hausnartzeko gaia: zer nolako garrantzia du bakerako eskubidea giza eskubide besterenezina izateak? Zer oztopo daude eskubide hori mundu zabalean bermatu ahal izateko?

Nola lagundu dezakegu, gizabanako eta gizarte gisa, bakerako eskubidea lortzeko lanean?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Sor ezazu bakerako eskubidea eta horrek gizateriarentzat duen garrantzia islatzen duen artelan bat. Material birziklatuak erabil ditzakezu lan hori osatzeko.

Sortu horma-irudi kolektibo bat: taldeko kide bakoitzak Giza Eskubideen Aldarrikapena bakearekin lotutako testu-zati bat irudika dezake.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Adituen mahaia:** Ikertzeko gaia: bakerako eskubidea eta haren harremana beste giza eskubide batzuekin. Ikerlanaren emaitzak ikaskideen aurrean azalduko dira.

Etika

- **Gutun bat etorkizuneko belaunaldientzat:** Idatzi mezuak etorkizuneko belaunaldiei, bakerako eskubidea bermatzeko modu posiblei buruz.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa


- **Horma-irudi kolektiboa:** Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta bakearen arteko harremana islatuko duen horma-irudi bat osatzea.

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=rdID5cR6prk>

Testua: <https://www.un.org/es/about-us/un-charter/full-text>

<http://aedidh.org/wp-content/uploads/2019/07/Declaraci%C3%B3n-Universal-DHP-14.7.19.pdf>

17. diapositiba. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH)



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Deskriba ezazu Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren (NZH) xedea. Nola saiatzen da gatazka armatuen ondorioak mugatzen, murrizten?

Azter ezazu duela gutxi gertatutako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzearen adibide bat. Nola aplikatu izan da kasu horretan nazioarteko justizia?

Etika

Hausnartzeko gaia: NZHk gerran giza eskubideak babesteko duen garrantzia. Zergatik da funtsezkoa NZH betetzea?

Zure sutean, ekidin al daiteke gatazkan dauden aldeek NZH urratzea? Zer oztopo daude horretarako?

Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa:

Sor ezazu NZHk zibilen babesean duen eragina sinbolizatzen duen ikus-adierazpen bat. Erabili itzazu horretarako bakea eta justizia irudikatzen dituzten sinboloak.

Egizu komiki bat, non NZHk pertsonak babesten dituen gatazka-egoeraren bat islatzen den. Nola adieraz zenezake arau horiek errespetatzearen eta urratzearen arteko aldea?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Kasu-azterketa:** Ikertzeko gaia: NZHren arauak urratu diren duela gutxiko gatazkaren bat, adibidez, Siria edo Ukrainakoa. Prestatu kasu horren inplikazio legal eta humanitarioei buruzko aurkezpen bat.

Etika

- **Rol-jokoa:** Nazioarteko auzitegi bat simulatuko dute ikasleek, non NZHren urraketa bat epaituko bata. Ikasleek rol desberdinak jokatuko dituzte: abokatuak, epaileak eta lekukoak.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Komiki narratiboa:** NZHren garrantzia islatzen duen komiki bat diseinatzea, NZHk gatazka-eremuetan pertsonak nola babes ditzakeen erakusteko.

Testua: <https://www.icrc.org/sites/default/files/external/doc/es/assets/files/other/dih.es.pdf>

18. diapositiba. Nazio Batuen (NBE) Segurtasun Kontseilua



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zure ustez, zergatik dute beto-ahalmena Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek? Zer abantaila eta desabantaila ditu sistema horrek munduko bakearen inguruan?

Zure ustean, zer irizpide hartu beharko lirateke kontuan Segurtasun Kontseiluko 10 kide ez-iraunkorrek aukeratzeko?

Etika

Bidezkoa al da Nazio Batuen (NBE) Segurtasun Kontseiluan herrialde jakin batzuek gainerakoek baino botere gehiago izatea? Zure ustez, nola antolatu beharko litzateke ordezkari nazioarteko erakundeetan, ordezkari hori bidezkoagoa izan dadin?

Zer ondorio etiko ditu beto-ahalmenak gatazka armatu zein giza eskubideei buruzko erabakiak hartzerakoan?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begira ezazu arretaz Segurtasun Kontseiluaren irudia, eta erreparatu bertan aulkiak antolatzeko moduari. Zer sinbolismo egon daiteke aretoa antolatzeko moduan eta kideen banaketan?

Nola irudikatuko zenuke erraz ikusteko moduan beto-ahalmenaren ideia? Sor ezazu zirriborro bat, edo deskriba ezazu artelan baten bidez nola adieraziko zenukeen ideia hori.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Rol-jokoa, Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua:** Ikaskideen artean rolak banatuta (NBEren Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorrek batetik, ez iraunkorrek bestetik), simulatu gaur egungo gatazka jakinen bati buruzko ebazpena eztabaidatzeko saioa.

Etika

- **Eztabaida kritikoa:** Hausnartzeko gaia: beto-ahalmenaren inplikazio etikoak, eta nazioarteko erakundeetan ordezkari bidezkoagoa osatzeko alternatibak proposamena.


Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Infografia:** Infografia bat osatzea, Segurtasun Kontseiluaren funtzionamendua eta horren mugak azalduko dituen.

Irudia: Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren bilera.

Testua: Geuk egina.

19. diapositiba. NATO, batetik; “Gaizkiaren Ardatza” edo “Erresistentziaren Ardatza”, bestetik



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zein faktore historikok eta geopolitikok lagundu dute Erresistentziaren Ardatza eta itun horrek Iranekin duen harremana eratzten? Azal ezazu ardatz horretan dauden herrialdeek Ekialde Hurbilean duten garrantzia.

Zure ustean, nola eragin du NATOren hedapenak Erresistentziaren Ardatza delakoaren eraketan? Konpara itzazu bi koalizioen motibazio politikoak.

Etika

Ikuspegi etiko batetik, nola justifika liteke Erresistentziaren Ardatza bezalako aliantzak egotea? Zer dilema moral pizten ditu era horretako itunak egoteak berak?

Etikoa al da talde edo herrialde jakin batzuk delako Gaizkiaren Ardatz baten kideztat jotzea? Egin gogoeta etiketa mota horiek bizikidetzan eta munduko bakean dituzten ondorioei buruz.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Aztertu arretaz maparen diseinua. Zer elementu grafiko erabiltzen dira Erresistentziaren Ardatzaren eragin-eremuak nabarmentzeko, eta zer nolako inpaktu bisuala du diseinu horrek?

Nola irudikatuko zenuke grafikoki NATOren eta Erresistentziaren Ardatzaren arteko botere-harremana gatazka, erraz ikusteko modu objektibo batean transmititzeko? Azal ezazu zure diseinu-proposamena.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Blokeen arteko konparazioa:** Aztertzeko gaia: NATOk Erresistentziaren Ardatzaren aurrean dituen estrategiak. Adierazi NATOren motibazioak kontzeptu-mapa batean.

Etika

- **Hausnarketa etikoa:** Eztabaidatzeko gaia: bidezkoa al da herrialde jakin batzuk Gaizkiaren Ardatz delako baten kide gisa etiketatzea?, ez al du horrek tentsioa areagotzen laguntzen?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Mapagintza:** NATOren eragin-eremuak eta Erresistentziaren Ardatza grafikoki irudikatuko dituen mapa bat sortzea, botere eta erresistentzia sinboloak nabarmenduz.

Irudia: <https://elordenmundial.com/mapas-y-graficos/eje-resistencia-hamas-iran/>

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=IhhCspP7d64>

20. diapositiba. Heriotza eta bakea gerra-lubakietan

[...] Itotzen ari zela oharitu nintzen.


Ametsero, ahalke,
laguntza eske dakusat, hilzorrian.

Zuk zeuk ere, ametsetan,
jaurti genuen gardiaran atzetik oinez zoazela,
haren begiak zirela zintzen,
deabru akituaren haren aurpegi eroria ikusiko bazenu:
haren bilaka gabotik, ezta! bakoitzeko, odola ahotik borborka,
mirritza bezain liza.

Hizkuntza erugabeetako zauri sendaezinen gorbitxoak bezain miltatz.
Lagan, ez zenieko ospe eta loria egaritz dagoen mutikoei
horren sutuki gezur zahar hura sinetsaraziko: "*Dulce et decorum est
pro patria mori.*"

Dulce et Decorum est poemaren zati bat. Wilfred Owen soldadua ikatzi zuen. Antzinako Horazio poetaren esaldi ospetsu hau kritikatu asmoz: "Gozo eta ederra da, ohorea, aberikaren alde hitza". Esaldi hori eruz balaitu izan da gerran —berezi Lehen Mundu Gerran— gaitzen mobilizazioa justifikatzeko.

Itzulpena: Gotzon Barandiaran, [estika honetan](#)



GABONETAKO SU-ETENA
Horrela daitzen zaio 1914ko
Eguberri inguruan, Munduko Lehen
Gerran, mendebaldeko frontean gertatu
ziren su-eten ez ofizial sorta bati.

20

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zein gertakari historiko erakusten du Gabonetako su-etenaren irudiak? Azal ezazu gertakari horren testuingurua, eta Lehen Mundu Gerran izan zuen garrantzia. Nola eragin zion lubaki-gerrak soldaduek Lehen Mundu Gerran izan zuten esperientziaren pertzepzioari? Jar itzazu harremanetan pertzepzio hori gerraren ondorio psikologiko eta sozialekin.

Etika

Zer dilema etiko sortzen dira *Dulce et Decorum est* poemaren laburpenean aipatzen diren gerra-izugarrikerien deskribapenetik? Ba al da halako moldeetan garatzen den gerra justifikatzerik? Zer mezu transmititzen du Gabonetako su-etenak, gizakiek gerraren erdian bakea bilatzeko duten gaitasunari buruz? Hausnartzeko gaia: elkarrizketaren eta gizatasunaren balioa, indarkeriaren aurrean.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Ikus ezazu Gabonetako su-etenaren irudiaren konposizioa. Zer ikus-elementu erabiltzen dira gerraren erdian bake-mezu bat helarazteko? Nola islatzen du argazkiak gatazkaren etenaldia? Sor ezazu ilustrazio bat, lubakietan heriotzaren eta bakearen arteko kontrastea irudikatzen duena, oinarri hartuta Gabonetako su-etena bera, eta hari buruzko olerkiaren bertsoak. Nola transmiti ditzakezu gerraren basakeria, batetik, eta bakearen itxaropena, bestetik?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Narratiba historikoa:** Idatzi Lehen Mundu Gerrako lubakietan dagoen soldadu baten kronika, Gabonetako su-etena nabarmenduz.

Etika

- **Poema dialogikoa:** Irakurri *Dulce et Decorum est* eta beste gerra-poema batzuk, hausnartu hori den mezuari buruz, eta idatzi erantzun poetikoak, bake-ikuspegi batetik abiatuta.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Kontraste-ilustrazioa:** Sortu ilustrazioa bat, lubakietako bizitza gordinaren eta Gabonetako su-etenaren itxaropenaren arteko kontrastea alderatzen dituen.

Irudia: A. C. Michael / The illustrated London News in

https://historia.nationalgeographic.com.es/a/tregua-navidad-primer-guerra-mundial_8801

Testua: <https://alphahistory.com/worldwar1/dulce-et-decorum-est-wilfred-owen/>

21. diapositiba. GERRARIK EZ



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zein da Gerrarik Ez bezalako mugimendu pazifisten esanahi historikoa, munduko gatazka armatuen testuinguruan? Zer beste mugimendu antimilitarista ezagutzen duzu? Aztertze gaia: irudian aipatutako gatazken kausak eta ondorioak. Zure ustez, "Gerrarik Ez" eta antzeko mugimenduek nola eragin dezakete gatazka horien konponbidean?

Etika

Zer balio etiko sustatzen ditu Gerrarik Ez mugimenduak? Zergatik uste duzu antimilitarismoa eta bakea printzipio etiko garrantzitsuak direla gizartearentzat?

Hausnartzeko gaia: herritarrek "Gerrarik Ez" eta horren antzeko mugimenduetan duten zeregina. Zenbateraino da pertsonen erantzukizun etikoa gerraren aurka egitea?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Aزتertze gaia: "Gerrarik Ez" kanpainako irudien eta sinboloen erabilera. Nola laguntzen dute elementu horiek mezu antimilitarista bat transmititzen?

Sortu "Gerrarik Ez" ideia irudikatuko duen kartel bat. Zer kolore, irudi eta mezu erabiliko zenituzke jendearen arreta bereganatzeko eta bake-mezu bat helarazteko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Mugimendu pazifisten historia:** Ikertze gaia: Gerrarik Ez eta beste mugimendu batzuek gure garaian duten eragina. Osa ezazu horma-irudi kronologiko bat.

Etika


- **Herritarrei dagokien erantzukizuna:** Taldeka, hausnartzeko gaia: herritarrek mugimendu pazifistetan duten eginkizun etikoa.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Kartel antimilitaristak:** Gerrarik Ez mugimenduak sustatutako kanpainan oinarritutako kartel bat diseinatzea, bakearen eta antimilitarismoaren balioak nabarmenduz.

irudia: Juanjo Celorio.

22. diapositiba. Blokeak Gerra Hotzaren garaian



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer ziren, jatorri batean, Varsoviako Ituna eta NATO? Azaldu zergatik estu ziren itun horiek Gerra Hotzaren garaian, bai eta horretan lagundu zuen testuinguru historikoa ere.

Aztertze gaia: Gerra Hotzaren garaian, nola eragin zuen "inguratzearen" pertzepzioak (beste blokearen hedapenarenak, alegia) o Estatu Batuen eta SESBen nazioarteko politiketan? Zer eginkizun izan zuten itun militarrek testuinguru horretan?

Etika

Zein dilema etiko pizten ditu herrialdeak bloke militarren bidez beren interesak babesteko elkartzeko politikak? Hausnartzeko gaia: nola eragin zezaketen itun horiek munduko egonkortasunean? Zure ustean, itun militar horiek Gerra Hotzaren garaian bakeari edo gatatzari eusten lagundu zioten? Justifikatu zure erantzuna, egoera hark ukitu zituen herrialdeen gaineko segurtasunaren gaineko ondorioak aintzat hartuta.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begiratu arretaz Gerra Hotzaren garaiko itun militarren mapak. Mapetan, nola irudikatzen da bloke bakoitzak duen eragina? Zer kolore edo sinbologia erabiltzen dira botere-banaketa islatzeko? Sor ezazu ikus-irudikapen bat, Gerra Hotzaren garaian munduko herrialdeen banaketa erakusten eta itun militarren eragina islatzen duena. Zer ikus-elementu erabiliko zenituzke tentsioa eta banaketa globala sinbolizatzen?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Mapa-analisia:** Aztertu NATOren eta Varsoviako Itunaren eragin-guneen mapak, eta identifikatu bloke bien arteko tentsioak.

Etika

- **Dilema etikoa:** Hausnartzeko gaia: itun militarrek bakeari eusten laguntzen al dute benetan, edo gatatzak betiereko iraunarazten?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Mapa artistikoa:** Sortu mapa bat sinboloen bitartez, sortu Gerra Hotzaren garaiko banaketa eta tentsioak islatuko dituen mapa bat.

Irudiak: <https://www.bridgemanimages.com/en/noartistknown/map-of-europe-in-1945/nomedium/asset/1728546>

23. diapositiba. Gerra emakumeen aurka

Gerra emakumeen aurka

Lehen Mundu Gerra. Women's International League for Peace and Freedom (WILPF): 1915ean sortu zuten erakundea emakume talde batak, gerra nola gaitzerazi eta bakea nola sustatu eztabaidatzeko. Hagan bidu zituzten. Emakume horietako asko gatazka eragin zuen nazionalismoaren eta militarismoaren aurka zeuden. WILPF indarrean gaur egun ere, eta irmagabetearen, justizia sozialaren eta errezko alorretan dihardu.

Bigarren Mundu Gerra. Bakearen aldeko Mugimenduko Amak: Europaiko hainbat herrialdeetan eta Estatu Batuetan emakume taldeak antolatuta ziren, berziki emak: osatuak, bake adinean eta eskubide militarren gaitzeraren alde. Emakume horiek furtsezko lana egin zuten biktimei eta errefuxiatuei laguntzeko sareei eusteko zereginetan. WILPFek ere presentzia handia izan zuen aldi horretan, nahiz erregimen autoritarioen pean zeuden herrialde batzuetan errepresio jasau.

Gerra Hotzaren garaia. Greenham Common Women's Peace Camp: 1981ean, emakume britainiar talde batek kanpamendu bat ezarri zuen AEBetako misil nuklearrak hartzen zituen Greenham Common izaneko aire-basaren ondoan. Bakearen aldeko Emakumeak (Women Strike for Peace, WSP) 1961ean sortutako mugimendu estatubatuarra izan zen, arma-eskudaren eta Estatu Batuek Vietnamen aritzaren aurka protestatzeko.



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer rol bete zuen Women 's International League for Peace and Freedom (WILPF, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga euskaraz) erakundeak Lehen Mundu Gerran? Zer nolako jarduera eta ekimenak bideratu zituzten?

Nola eragin zuten emakumeen mugimendu bakezaleek —Greenham Commoneko kanpamentuek, esaterako—, Gerra Hotzaren garaiko niritzi publikoan?

Etika

Zergatik da garrantzitsua emakumeen papera mugimendu bakezalee eta pazifistetan; nola lagundu dute emakumeek gerra arbuiztzen?

Zer erronka etikori egin behar izan zieten aurre testuan aipatutako etapa historikoetan militarizazioaren aurka agertu ziren emakumeek?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Gerraren aurka agertzen diren emakumeen irudietatik abiatuta, nola irudika zenezake ikus-molderen batean militarismoak eguneroko bizitzan duen eragina?

Zer ikus-elementu erabil litezke emakumeek XX. mendean bakearen aldeko mugimenduetan egindako erresistentzia baketsuaren mezua helarazteko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Mugimenduen azterketa:** Ikertzeko gaia: Women 's International League for Peace and Freedom eta Greenham Commonek mugimenduek izandako eragina, bakoitzak bere testuinguru historikoan.

Etika

- **Elkarrizketa-mahaia:** Hausnartzeko gaia: emakume pazifistek testuinguru militarizatueta aurre egin beharreko erronka etikoak.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Ikus-adierazpena:** Diseina ezazu militarismoak emakumeen eguneroko bizimodua duen eragina adieraziko duen artelan bat.

Irudia: <https://fabricadelamemoria.com/mujeres-cientificas-que-no-aparecen-en-los-manuales-un-ejemplo-alice-hamilton/>

Testua: https://seipaz.org/wp-content/uploads/C.9-GeneracionesWILPF-1.pdf?utm_source=chatgpt.com

24. diapositiba. Emakumeak gerren aurka

Emakumeak gerren aurka

Balkanetako gerrak. Beltzez Jantzitako Emakumeak: 1991ean Belgraden eratu zen, Jugoslavia ohiko gerretako ankerkerien kontra protestan.

GAUR EGUN INDARREAN DAIREN GATAZKAK

Ukraina/Errusia gerra (2022-gaur egun) Errusiar Emakumeak Gerraren Aurka: Errusian sortu zen mugimendua, Ukrainaren inbasioaren aurka protestatzeko asmoz. Emakume horiek manifestazioak egin dituzte, sarri askotan gobernuaren errepresioari aurre eginez. Ukrainako Bakearen aldeko Emakumeak: Ukrainako zenbait emakume-talde aldarrak egin dute desarmaren eta gatazka modu baketsuan konpontzearen alde.

Afrikako gerrak. Women for Peace Network (WPN): emakume afrikarren zenbait erakunde (esaterako, Liberian Leymah Gbowee buru zuena) berebiziko garrantzia izan dute Liberiako gatazka zibilaren konponbidean. FEMNET (African Women 's Development and Communication Network; Afrikako Emakumeen Garapenaren eta komunikazioaren aldeko Sarea, euskaraz): sare honek bakerako delak egin ditu eta Afrikako hainbat herrialdeetako gatazka armatuak galtzetsi, gerrak emakumeengan eta haurrengan duen eragina nabarmenduta.

24

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
Balkanetako Gerretan, zertan aritu ziren Beltzezko Emakumeek, eta zer eragin izan zuten iritzi publikoan, gatazka horien inguruan?

Nola egin diete aurre emakume-taldeen Ukraina, Palestina eta Afrikako hainbat lekutako okupazio eta gatazka armatuei? Konpara itzazu haien ekintza eta helburuak.

Etika

Zergatik da garrantzitsua emakumeen aktibismoa gerra-testuinguruetan? Hausnartzeko gaia: indarkeriaren aurkako borrokaren inplikazio etikoak.

Zer erronka etikoei egiten diete aurre okupazio militarren eta giza eskubideen urraketen aurka protestan diharduten emakumeek, borroka horietako bakoitzaren testuinguruan?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Gerraren aurka protestan ari diren emakumeen irudia oinarri hartuta, nola adieraz zenezake gerrak emakumeengan eta haurrengan duen inpaktu emozionala?

Zein ikus-elementu (kolore, sinbolo zein konposizio) erabiliko zenituzke deskribatutako gatazketan emakumeek bakearen alde egiten duten borroka nabarmentzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Konparazio historikoa:** Aztertze gaia: nola eragin dute Beltzezko Emakumeek eta beste talde batzuek Balkanetako, Palestinako eta Ukrainako gatazka armatuetan?

Etika

- **Saiakera etikoa:** Idatz ezazu emakumeen aktibismoak gerra-testuinguruetan duen garrantziari buruzko testu bat, gaiaren inguruan hausnartu duzunean oinarrituta.

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Horma-irudi kolektiboa:** Osa ezazue horma-irudi bat, emakumeek hainbat testuinguru historikotan bakearen alde egiten duten borroka irudikatuko duena.

Testua:

https://es.wikipedia.org/wiki/Mujeres_de_Negro?utm_source=chatgpt.com

https://es.wikipedia.org/wiki/Resistencia_Feminista_Anti-guerra?utm_source=chatgpt.com

https://www.unwomen.org/es/noticias/reportaje/2022/09/las-mujeres-huyen-y-muestran-su-solidaridad-a-medida-que-la-guerra-devasta-ucrania?utm_source=chatgpt.com

25. diapositiba. Feminismoa gerren aurka



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer nolako harremana dago "genozidio" kontzeptuaren eta Gazako egoeraren artean? Azal itzazu gatazkaren arrazoiak eta Gazako biztanleentzat dituen ondorioak. Zergatik nahasten da mugimendu feminista Gazako gatazkan eta gisako beste batzuetan? Aztertze gaia: emakumeek gerra-testuinguruetan eta giza eskubideen aldeko borrokan duten zeregina.

Etika

Zer esan nahi du —hala baitio laminak— Gazako gatazkaren amaiera "auzi feminista" izateak? Hausnartzeko gaia: baieztapen hori justifikatzen duten printzipio etikoak. Zer erantzukizun dagokio nazioarteko komunitateari gatazka-guneetan (Gazan, esaterako) emakumeen eskubideak babesteko zereginean?

Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

Begiratu arretaz irudiak. Zer ikus-elementuk islatzen dute emakumeen erresistentzia eta sufrimendua Gazan? Deskriba ezazu irudi horien eragina ikusleengan.

Nola irudikatuko zenuke artistikoki "Feminismoa gerren aurka" kontzeptua, koloreak eta sinboloak erabiliz? Zer mezu islatzen saiatuko zinateke?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Gazako gatazka:** Ikertze gaia: feminismoak Gazako giza eskubideen urraketak salatzeke egiten duen lana.

Etika

- **Hausnarketa etikoa:** Hausnartzeko gaia: "Gazako gatazkaren amaiera auzi feminista da" baieztapena; zer esan nahi du?


Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa:

- **Artelan sinbolikoa:** Sor ezazu "Feminismoa gerraren aurka" kontzeptuaren ikus-irudikapena, erresistentzia-kolore eta -sinboloak erabiliz.

Irudia: <https://bdsmovement.net/es/news/poner-fin-al-genocidioengaza-una-cuesti%C3%B3n-feminista-convocatoria-por-parte-de-las-mujeres>


26. diapositiba. Banka armatua

"Banka Armatu" esamoldearekin izendatzen dira armagintzan inbertitzen duten finantza-erakundeak, dela armak ekoizten dituzten enpresak finantzaturak, dela sektore hori lotutako finantza-produktuak merkaturaturak. Erakunde horiek armak fabrikatu eta esportatzera bideratzen dituzte. Funtsean, haiako moduan non, zeharka bada ere, gatazka armatuak irabaztearen giza eskubideak urratzen eta mundua ezegonkortzen laguntzen dute.



Banka Armatuaren aurkako kanpaina Espainiako hainbat erakunde bideratzen dute, bestak beste hauek: Centre Delas d'Estudis per la Pau, SETEM, Justicia y Paz. Bankuek armetan egindako inbertsioei buruzko urteko bostenak argitaratzen dituzte, adibidez, "BBVA y Santander financian armaz nucleares" izenekoak, gaztelaniaz (BBVAK eta Santander Bankuak arma nuklearrak finantzatzen dituzte).

Kanpaina horretan, banku inplikatuak akziodunen batzarretan egiteko ekintzak antolatzen dituzte, hala nola esku-hatze publikoak, armen finantzaketan duten rola salatzeak.



¿Sabes que inberten en empresas de armas? ¿Te da tanta rabia como a nosotros?

Banka Armatuaren kontrako Intsumisio-mugimendu bat ere sortu izan da, arma-industria babesten duen finantza-sistema salatu, hari boikota egin, eta hura eraldatzeko herri-erantzun gisa. Mugimendu hori lau elementu hauetan oinarritzen da:

- finantza-gardentasuna;
- boikota bankuei;
- alternatiba etikoak;
- gizarte-mobilizazioa.

26

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Mundu-mapa batea, identifika itzazu herrialde bakoitzean (Europar, Euskal Herrian...) arma-industriaren jarduera finantzatzen ari diren bankuak. Nola eragiten die horrek dinamika geopolitikoei? Zer gatazka historiko bultzatu ditu armen finantzaketak? Aipa itzazu adibide zehatz batzuk.

Zer lotura historiko dago arma-industriaren eta kolonialismoaren artean?

Etika

Zer dilema etiko planteatzen ditu finantza-erakundeek armagintza finantzatzeko?

Zure ustez, bankuei ba al dagokie nolabaiteko gizarte-erantzukizunik, etekin ekonomikoak irabaztetik harago? Zergatik?

Zer ekintza har ditzakete herritarrek banka etiko eta arduratsua sustatzeko?

Zer lotura dago nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta armen finantzaketaren artean?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Nola izan daiteke artea Banka Armatua nahiz arma-industria salatzeke tresna?

Zer inpaktu dute elementu grafikoek eta laminan erabilitako koloreek? Zergatik dira elementu eta kolore horiek eraginkorrak —edo ez— mezua transmititzeko?

Zer diseinu mota sor liteke Banka Armatuaren aurkako kanpaina berri bat osatzeko?

Jarduerak:

Kartelgintza: Diseina ezazu Bankaren eta gatazka armatuen arteko harremana salatzeke poster edo horma-irudi bat.

Collagea: Bil itzazu arma-industriarekin eta finantzekin lotutako irudiak, eta, horien bitartez, sor ezazu gaiaren tentsio etiko eta sozialak islatzen dituen collagea.

Eragin-analisia: Azter itzazu armagabetzearekin eta finantzaketa etikoarekin lotutako ikus-kanpainak, eta ebaluatu kanpaina horien eraginkortasuna.

JARDUERA IRADOKIZUNAK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Denbora-lerroa:** Sor ezazu denbora-lerro bat, XX. mendetik gaur egun arte arma-industriak izan duen bilakaera eta horrek Banka Armatuarekin duen harremana erakusten duena.
- **Gatazken mapagintza:** Mapa batean, identifika gaur egungo zein gatazketan egon daitekeen bankuen zeharkako finantzaketa.
- **Kasu-azterketa:** Aztertzeke gaia: finantzen eta armamentismoaren papera giltzarri izan den gatazka historikoren bat (esaterako Gerra Hotza), edo ez aspaldikoa (adibidez Yemengoa).

Etika

- **Rol-jokoa:** Antolatu "entzunaldi publikoa" bat, non rol desberdinek (bankariak, aktibistak, gatazken biktimak) armen finantzaketaren aurrean dituzten jarrerak defendatuko dituzten.
- **Kode etikoa:** Diseina ezazu kode etiko bat finantza-erakundeentzat, armamentismoaren aurrean alternatiba arduratsu eta iraunkorrak islatuko dituena.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Hausnarketa idatzia:** Idatzi saiakera labur bat Bankak mundu bidezkoago eta baketsuago batean nola lagun dezakeen azaltzeko.
- **Kartelgintza:** Diseina ezazu Bankaren eta gatazka armatuen arteko harremana salatzen poster edo horma-irudi bat.
- **Collagea:** Bil itzazu arma-industriarekin eta finantzekin lotutako irudiak, eta, horien bitartez, sor ezazu gaiaren tentsio etiko eta sozialak islatzen dituen collagea.
- **Eragin-analisia:** Azter itzazu armagabetzearekin eta finantzaketa etikoarekin lotutako ikus-kanpainak, eta ebaluatu kanpaina horien eraginkortasuna.

Irudiak: <https://bancaarmada.org/es/quienes-somos/> Testua:
<https://bancaarmada.org/es/#sobre>

27. diapositiba. Intsumisiao eta kontzientzia-eragozpena



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK:

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Testuaren arabera, zer alde nagusi daude kontzientzia-objekzioaren eta intsumisioaren artean, Zer esan nahi du jarrera bakoitzak?

Zure ustean, zergatik bihurtu zen intsumisiao mugimendu esanguratsua euskal eta espainiar gizartean?

Zer eragin sozial izan zituen intsumisio-mugimenduak Espainian, batez ere derrigorrezko soldadutzaren pertzepzioari dagokionez?

Etika

Zer dilema etiko planteatzen ditu desobediencia zibilak, aldaketa sozialerako tresna den aldetik?

Zer esan nahi du "bidezko desobediencia" kontzeptuak intsumisio-mugimenduaren testuinguruan, eta nola aplikatu daiteke kontzeptu hori beste gatazka etiko batzuetan?

Zer deritzozu intsumisioek bidegabetzat jo zuten lege jakin bat desobeditzearen alde hartu zuten hautu pertsonalari? Ikuspegi etoko batetik, justifikatzeko modukoa al da?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Zure ustez, nola lagundu zuten intsumisio-mugimenduak erabilitako irudi eta sinboloek (pankartak, kartelak eta esloganak) zabaldu zuten mezua sendotzen?

Nola eragiten du laminaren diseinu grafikoak mezu antimilitaristaren pertzepzioan?

Zer elementu grafiko gehitu edo alda litezke derrigorrezko soldadutzaren salaketa indartsuagoa izan dadin?

JARDUERA IRADOKIZUNAK:

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia:

- **Talde-eztabaida:** Antolatu eztabaida ikasgelan, bi jarrera desberdinen inguruan: talde batek zerbitzu militarren legezketasuna eta derrigortasuna defendatuko du, eta besteak, berriz, intsumisioaren eta desobediencia zibilaren ikuspegiaren alde argudiatuko du.
- **Denbora-lerroa:** Osa ezazu denbora-lerro bat, non Espainiako intsumisio-mugimenduaren mugari nagusiak kronologiko bilduko diren, horien artean mugimenduaren sorrera, gorakada, eta nahitaezko soldadutzaren abolizioa (2001ean).

Etika

- **Saiakera etikoa:** Idatzi saiakera labur bat galdera honi erantzunez: Zilegi al da desobediencia zibila giza eskubideen aurka egiten duen lege baten aurka?
- **Hausnarketa-mahaia:** Antolatu dinamika bat, non ikastaldeko kideetako bakoitzak azalduko duen bere aburuaz "desobeditze" aditzak zer esan nahi duen, eta horrek gizartean nola eragin dezakeen.
- **Konparazio historikoa:** Aztertze gaia: munduko izandako beste mugimendu antimilitarista edo pazifistaren bat (adibidez, Vietnamgo Gerraren aurkako mugimendua), eta konparatu Espainiako intsumisio mugimenduarekin.
- **Mapagintza:** Identifika itzazu, Espainiako mapa batean, intsumisio-mugimenduak garrantzi handiena izan zituen eskualdeak, eta aztertu eskualde horietan mugimendua garatzen lagundu zuten faktore sozial eta politikoak.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Kartelgintza:** Diseinatu desobedientzia zibila aldaketa sozialerako tresna legitimo gisa sustatzen duen kartel bat, insumisio-mugimenduaren elementu grafikoetan inspiratuta.
- **Collage kolektiboa:** Taldeka, egin ezazue collage bat, antimilitarismoaren eta desobedientzia zibilaren balioak irudikatzen dituzten irudi eta esaldiekin.
- **Ikus-elementuen analisia:** Azter itzazu laminan erabilitako ikus-estrategiak. Hausnar ezazu nola sendotzen edo ahultzen dituzten kolore, diseinu eta sinboloek mezua.

Irudiak: https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/antimilitaristas-moc-kakitzat-gobierno-militar-insumision-ejercitos_1_5024128.html

<https://www.antimilitaristas.org/IMG/pdf/LIBRO.pdf>

Testua: <https://e-revistas.uc3m.es/index.php/HISPNOV/article/view/5885>

28. diapositiba: Sahara, erresistentzia anticoloniala



rtve Noticias

LA DESCOLONIZACIÓN PENDIENTE

El SÁHARA OCCIDENTAL, uno de los 17 TERRITORIOS del MUNDO que quedan por DESCOLONIZAR | RTVE

Egun batetik hurrengora, eta aurrez ezer jakinarazi gabe, Espainiako Gobernuak aldatu egin du Saharari buruzko jarrera, eta haren kolonia izan zena Marokok autonomiatzat hartzea onartu. Erabaki horrek nazioarteko legedia hausten du, batetik, eta, bestetik, muzin egiten dio Espainiari —potentzia administratzaile den aldetik— saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea bermatzeko dagokion erantzukizunari. (informazio gehiago, gaztelaniaz)

Irtenbidea Sahara zafitu eta banatzea bada, aitoritu behar da hori, funtsean, saharar herriak autodeterminazio eta independentziarako duen eskubidea ukatzea dela. Mendebaldeko Saharako gatazka ez da lurralde-gatazka sorta luetsu bati; espezialki, hainbat hamarkadatan bere lurra eta subiranotasuna berreskuratzeko borrokatu duen herri baten deskolonizazioa da. Zatiketa plan horrek nazioarteko zuzenbidearen oinarritzeko printzipioak urratzen ditu, bai eta lurraldearen etorkizuna erabakitzeko erreferenduma eskatu duten NBEren ekazpen ugari ere. Gainera, zatiketarako eskualdeak dagoeneko bizi dituen tentsioak areagotzeko mehatxua dakar berekin. Marokok Mendebaldeko Sahararen gainean duen kontrol militarizatuak giza eskubideen urraketa larriak, protesta baketsuen debekua eta eskualdeko baliabide naturalen ustiapena eragin ditu. Lurraldea zatitzeak indarkeria zein militarizazioa areagotzea ekarriko luke; egoera hori eskualdeko gainerako estatuetara zabaldu daiteke, halako moduan non Magrebeko eskualde zabalena ezegonkortzea ekarriko luke.

28

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer faktore politiko eta ekonomikok eragiten dute Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioaren inguruan Espainiako gobernuak duen jarreran?

Zer eginkizun du nazioarteko zuzenbideak deskolonizazio-prozesuetan? Zure ustean, errespetatzen al da nazioarteko zuzenbide hori kasu jakin honetan?

Nola eragiten die sahararrei Marokok Mendebaldeko Sahara okupatzeak, giza eskubideei eta kultura-eskubideei dagokienez?

Etika

Zer dilema etiko pizten ditu Espainiako gobernuak Mendebaldeko Sahararekiko jarrera aldatzeak?

Zer esan nahi du "herrien autodeterminazioak" ikuspegi etiko batetik?; nola aplikatu beharko litzateke kasu jakin honetan?

Nazioarteko komunitateak Sahararen independentzia ez onartzeak, nola eragiten dio justizia globalari?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Zer mezu transmititzen du laminaren irudiak? Nola indartzen edo mugatzen du mezua koloreen eta elementu grafikoaren konbinazioak?

Nola lagundu dezakete saharar herriaren adierazpen artistikoek autodeterminazioaren eta deskolonizazioaren aldeko borrokan?

Zer ikus-elementu gehitu edo alda litezke Sahararen kausari buruzko mezu argiago edo zirrargarriagoa helarazteko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK:

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Analisi kritikoa:** Ikasleak taldetan banatuta, talde bakoitzak Mendebaldeko Sahararen gatazkan giltzarri diren eragileak (Espainia, Maroko, NBE, Fronte Polisarioa) ikertuko dituzte. Talde bakoitzak gatazkan dituen jarrera eta interesak aurkeztu behar ditu besteen aurrean.
- **Eragile-mapa:** Osa ezazu Venn-en diagrama bat, eta jar itzazu harremanetan gatazkan dauden herrialdeen interes politiko, ekonomiko eta sozialak.
- **Analisi kartografikoa:** Mapa hartuta, koka itzazu Mendebaldeko Sahara eta bertako mugak. Iker itzazu eskualdeko baliabide naturalak, eta nola eragiten duten gatazkan.
- **Konparazio historikoa:** Ikertzeko gaia: beste deskolonizazio prozesuren bat (adibidez, Aljeriakoa, Hegoafrikako, etab.) eta konparatu hura Mendebaldeko Saharakoarekin.

Hausnar ezazue deskolonizazio-prozesu horien emaitzen arteko antz eta desberdintasunei buruz.

Etika

- **Saiakera laburra:** Idatz ezazu zure gogoeta, galdera honi erantzunez: Etikoa al da gobernu jakin batek nazioarteko gatazka jakin bati buruz duen jarrera aldatzea, jarrera-aldaketa horrek autodeterminazio eskubidea urratzen badu?
- **Elkarrizketa-mahaia:** Mahai-inguruan, ikasleek nazioarteko komunitateak Saharako gatazkaren konponbidean duen zereginari buruz dituzten ideiak konpartituko dituzte.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Kartelgintza:** Diseina ezazu kartel bat Mendebaldeko Sahararen autodeterminazioaren aldeko nazioarteko kanpaina baterako, saharar herriaren borroka irudikatzen duten kolore eta sinboloak erabilita.
- **Collagea:** Sor ezazu collage bat, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioaren aldeko borroka irudikatzen duten irudiak, testuak eta koloreak erabiliz.
- **Ikus-elementuen analisia:** Ebalua ezaz laminaren irudia. Hausnartzeko gaia: nola alda daitezkeen elementu grafikoak eta diseinua mezu argiago eta zirrargarriago bat helarazteko?

Bideoa: “La Descolonización pendiente”

https://www.youtube.com/watch?si=UinYi7wKJ_vD5cJY&v=RTURXCELVs&feature=youtu.be

Testua: <https://www.alianzaporlasolidaridad.org/areas/accion-humanitaria-y-emergencias/la-decision-del-gobierno-sobre-el-sahara-es-contraria-al-derecho-internacional>

<https://ecsaharai.com/10/2024/los-peligros-de-la-particion-un-enfoque-imprudente-para-el-conflicto-del-sahara-occidental/>

29. diapositiba. *Mercado de la Muerte*, Javier de Villota-ren artelana

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Zer eginkizun dute gerrek harreman ekonomiko globalen eraketan?

Nola islatu ditu arteak gerraren eraginak hainbat une historikotan?

Zer nolako antz eta alde identifika ditzakezu *Mercado de la Muerte* lanak islatzen duen kasuaren eta populazio zibila gatazka armatuen biktima izan den beste gertaera historiko batzuen artean?

Etika

Gerrek gizarte garaikideetan dituzten ondorioak kontuan hartuta, zer dilema etiko planteatzen ditu horren aurreko axolagabekeriak?

Gatazka armatuetan gertatzen diren zibilen sarraskien aurrean, zer erantzukizun etiko izan beharko lituzkete gobernuak eta nazioarteko erakundeak?

Nola jokatu beharko lukete artistek —sortzaileek, oro har— gerraren izugarrikerien aurrean? Arteak ba al betebehar etikorik?

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

Zer emozio pizten ditu *Mercado de la Muerte* (Heriotzaren merkatua) lanak, eta nola lortzen du horiek ikusizko elementuen bidez transmititzea?

Zer mezu helarazi nahi du Javier de Villotak artistek gatazka-testuinguruetan duten paperari buruzko obra honekin?

Zer beste elementu ikusizko edo sinboliko gehitu dakizkioke obrari, duen salaketa-mezua indartzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK:

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

- **Ikerlan historiografikoa:** Duela gutxi gatazka armatu bati (adibidez, Siria edo Yemen) buruzko txosten bat egitea, eta zibilei nola eragiten dien eta komunikabideek eta arteak nola irudikatzen duten aztertzea.
- **Konparazio historikoa:** Konpara ezazu XX. mendeko gerren eragina (adibidez, mundu-gerrena) eta gatazka garaikideena, dinamika ekonomikoak, politikoak eta sozialak nola aldatu diren aztertuz.
- **Eztabaida:** Eztabaidatzeko gaia: globalizazioaren ondorioz, handitu edo murriztu egin da zibilen sarraskien kopurua gatazka armatuetan.

Etika

- **Hausnarketa idatzia:** Idatz ezazu saiakera labur bat galdera honi erantzunez: Gerraren biktimekiko axolagabekeriak jokatzea nolabaiteko konplizitatea al da?

- **Rol-jokoa:** Taldeka, mahai-inguru bat antolatzea, rol desberdinak jokatuko dituzten pertsonaiak bilduta: artistak, politikariak, aktibistak eta gatazken biktimak. Talde bakoitzak sarraskiak ikusaraztean eta horiei erantzutean dituen erantzukizun etikoei buruz eztabaidatzea.
- **Kode etikoa:** Gerraren eta indarkeriaren alorretan diharduten artistentzako kode etiko bat diseinatzea, botereari eta arteak hura salatzeko duen ahalmenaren mugei buruzko hausnarketa baten bidez.

Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa

- **Sormen artistikoa:** Ikasleek *Mercado de la muerte* artelanean oinarritutako artelana diseinatuko dute, material birziklatuak edo ikusizko elementu sinbolikoak erabiliz, artelan horren bidez gaur egungo gatazkaren bat salatzeko.
- **Collage kolektiboa:** Taldeka, egizue collage bat, gerrak populazio zibilean dituen ondorioak zein arteak protesta-bide gisa duen eginkizuna islatzen dituzten irudi eta testuekin osatuta.
- **Ikus-elementuen analisisa:** Egizu *Mercado de la muerte* artelanaren azterketa sakona: koloreak, formak, elementuen kokapena, eta emozioak zein mezuak transmititzeko lanak duten gaitasuna.

Irudiak: <https://www.elmostrador.cl/cultura/2013/09/06/javier-de-villota-la-indiferencia-nos-hace-complices/>

30. diapositiba: Gatazka ikusezinask, eta horien inpaktu globala



Gatazka ikusezinak eta horien eragin globala

Munduko titularrak gatazka mediatikoenetan zentratzen diren bitartean, Afrikan eta Asian dozenaka gerra oharkabeen igerotzen dira, eta beren atzetik milioika desplazamendu, ahezutako biktimak oloztatuak eta arplatutako ballabideak uzten dituzte. Beste gerra lail batzuek, komunitateak suntsitzeaz gain, desberdintasun globala eta axolagabetasuna iraunarazten dituzte. Zenbat eragin izan dezake gizarte kontziente batek ezkutuko tragedia horiek ikusaraztean?

30

GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia Zure ustean, zergatik jasotzen dute gatazka jakin batzuek arreta mediatiko handiagoa beste batzuek baino? Zer nolako garrantzia dute baliabide naturalek Afrika eta Asiako gatazketan?

Etika

Zer erantzukizun dagokie herrialde garatuei gatazka horiek betiko iraunarazteko orduan?

Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa

Nola irudikatuko zenuke bisualki gatazka jakin batzuei eta besteei ematen zaien arreta mediatikoaren arteko aldea?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

- **Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia** Ikertzeko gaia: arreta mediatiko urriko gatazkaren bat, haren arrazoiak, eragile nagusiak eta ondorioak aztertuta.
- **Etika** Rol-jokoa: nazioarteko komunitateak jokatzen duen rola gatazka ahaztuen konponbidean.
- **Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa** Sor ezazu gatazka ikusezin bat eta horren ondorioak (pertsonek zein ingurumenarentzat) ikusarazten dituen poster bat.

Irudia: https://es.wikipedia.org/wiki/Anexo:Guerras_y_conflictos_actuales

Testua: Geuk egina.

31. diapositiba: Gerra ekologikoa eta kapitalismoa



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia Nola erlazionatzen da baliabide naturalen ustiapena gatazka armatuekin? Zein herrialdek jasotzen dituzte ustiapen horren onurak?

Etika

Bidezkoa al da garapen ekonomikoa lehenestea ingurumena zaintzearen eta tokiko komunitateen eskubideen gainetik?

Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa

Zer sinbolo eta kolore erabiliko zenituzke "gerra ekologikoa" irudikatzeko?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

- **Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia** Ikertzeko gaia: baliabide natural jakin baten ustiapenak herrialde jakin batean eragin duen gatazka.
- **Etika**Taldeka, hausnartzeko gaia: garapen ekonomikoaren eta ingurumen-justiziaren arteko dilema etikoak.
- **Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa** Diseina ezazu baliabideen ustiapenaren aurrean komunitateen erresistentzia sinbolizatzen duen ikusizko artelan bat.

Irudia: <https://www.istockphoto.com/es/foto/vista-a%C3%A9rea-tierra-y-montones-de-basura-botellas-de-pl%C3%A1stico-y-basura-instalaci%C3%B3n-de-gm1477675200-506158224?searchscope=image%2Cfilm>

Testua: Geuk egina.

32. diapositiba: Teknologiaren eta hedabideen eragina gatazketan



GALDERA ETA HAUSNARBIDE POSIBLE BATZUK

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia
Nola eragiten du adimen artifizialaren erabilerak eta desinformazioak egungo gatazketan?

Etika

Zer erantzukizun dute enpresa teknologikoek gerrari buruzko edukiak sortu eta zabaltzean?

Hezkuntza artistikoa, plastikoa eta ikusizkoa

Nola irudikatuko zenuke bisualki bideojoko belikoez gerraren pertzepzioan duten eragina?

JARDUERA IRADOKIZUNAK

- **Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia** Ikertzeko gaia: “fake news” direlakoek orain gutxiko gatazken pertzepzioan izan duten eragina, bai eta “albiste faltsu” horiei aurre egiteko bideak ere.
- **Etika** Sor ezazu kode etiko bat, enpresa teknologikoek gatazka armatuen inguruan izan beharreko harremanen gainean.
- **Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikusizkoa** Diseina ezazu kartel bat, bideo-joko eta hedabideetan egiten den gerraren banalizazioa kritikatzeko.

Irudia: <https://es.wired.com/articulos/ia-controla-un-enjambre-de-drones-letales-la-carrera-armamentista-entre-ee-uu-y-china>

Testua: Geuk egina.



IKASLEENTZAKO UNITATE
DIDAKTIKOA

Ikuspegi antimilitarista eta pazifista

GERRARIK EZ (2025)



SI VIS PACEM PARA (**BELLUM) PACEM**

Si vis pacem, para pacem, no bellum

Bakea nahi baduzu, bakea nahi badugu, bakea jorratu behar da, bakea eskatu eta babestu... ez gerra. Kontua da ez hilerrietako bakea, baizik eta justiziadun bakea, eskubidedun bakea, negoziazio bidezko bakea, bakea pertsona eta herrientzat, bizitzaren aldeko bakea.


SARRERA

Unitate didaktiko hau **Gerrarik Ez / No a la Guerra** elkarteak Globalizazio Nagusiaren aro honetan erakutsi nahi duen konpromiso aktiboan du jatorria. Izan ere, Ekialde Ertaineko gerrak, Ukraina eta Errusiaren artekoa eta gisako beste batzuk mundu zabalera hedatzeko arrisku bizia dago.

Unitate didaktikoaren xedea bi mundu gerren eta geroko aldien (Gerra Hotza batetik, 2008 eta 2024 arteko egungo aldia, bestetik) kausak, horietan jazotako gertaerak eta horien ondorioak aztertzea da, horren bidez egungo interpretazio-elementuak aztertzeko.

Aldian aldiko botere hegemonikoek hondoa jo ondoren gertatu ziren aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoak aztertzen ditu unitateak, berebiziko arreta eginez interes geopolitikoaren eta konplexu militar/industrialen gorabeherari.

Horrenbestez, ezinbesteko galdera gakoak pizten dizkigu, esaterako: zein faktorek eragin dituzte halako gatazka handiak?, nola eragin diete gerrek gizarteei, giza galera zein galera ekonomikoetarako? Unitatea DBHko azken bi ikasturteetan eta/edo Batxilergoko lehenengoan jorrazteko modukoa da.



GERRAREN AURKAKO HAIKUAK

Haikua Japoniako poesia molde tradizional bat da. Hamazazpi silabako hiru bertsoz osatzen dira, bost, zazpi eta bost silabako lerroetan antolatuta. Ikuspuntu formal batetik, haikuak bi zatitan banatzen dira. Zatietako batek baldintza orokorrak eta poemaren denbora- zein espazio-kokapena adierazten ditu (udazkena edo udaberria, urretxindorra); besteak, bizi-bizia da, sigi-sagatsua, eta elementu aktibo bat izan behar du. Lehena deskriptiboa da, ia-ia enuntziatiboa; bestea, aldiz, ustekabekoa. Pertzepzio poetikoa bi aldean arteko talkatik sortzen da.(Wikipedia).

俳句

Haiku

Hausnartzeko...

Hausnartzeko gaia:
gerrari buruz, zer
nolako irudia ematen
dute haikuek?

Zer nolako emozio
pizten dituzte, eta
nola eragiten dute
gatazkaren gaineko
perzepzioan?

Zergatik da garrantzitsua
gerrari buruzko esperientziak
eta horiek sorrarazten
dituzten emozioak
artistikoki adieraztea?

“

Ilun da gau hotza,
gudua amaituta,
bizirik naiz oraino”


Hasegawa Sosei

Gari berdez soroa.
Kontra argian,
tanke bat dator.

Hino Soojoo

Itzulpena: Mario Unamuno





Termino generatiboak...


Gerra Hotza
Superpotentziak
Blokeak
Erabateko anabasa
Suntsipen handia
Amaierarik gabeko gerra

Muga berriak
Armamentismoa
Genozidioa
Ekozidioa
Euste-politika (Truman doktrina)
Gerra nuklearra

Bikoteka, online ikerlanean

Jar itzazue harremanetan koadroko terminoak gertakari hauekin:

Lehen Mundu Gerra
Errusiako Iraultza
Espainiako Gerra Zibila
Bigarren Mundu Gerra
Blokeen arteko gerrak
Askapen nazionaleko gerrak
Israel eta Palestina arteko gerrak
Txinako Iraultza
Koreako Gerra
Kubako Iraultza
Kubako misilen krisia
Vietnamgo Gerra
Irakeko Gerra
Saharako Gerra
Rwandako genozidioa (hutu eta tutsi etnien arteko gatazka)
Afganistango Gerra
Ukraina eta Errusia arteko Gerra
Gaza eta Libanoko genozidioa



1. XIX. mende aurreko gerrak

Hildakoak, guztira (hildako militarrek eta zibilak): 50 eta 100 milioi artean, gerra garrantzitsu guztiak kontuan hartuta (konkista-gerrak, erlijio-gerrak, gatazka inperialak, etab.).

2. 1800. urtetik Lehen Mundu Gerra arteko gerrak

Koalizioaren Gerrak —Napoleondar Gerrak ere deitzen zaie— (1803-1815):

Hildakoak, guztira: 3.5 eta 6 milioi artean

Hildako militarrek: 2.5 eta 3 milioi artean

Hildako zibilak: 1 eta 3 milioi artean

XIX. mendeko beste gatazka batzuk:

Hildakoak, guztira: 10 eta 15 milioi artean, kontuan hartuta independentzia-gerrak, gerra kolonialak eta gerra zibilak (adibidez, Estatu Batuetako Gerra Zibila), bateratze-gerrak Europan, eta abar.

3. Lehen Mundu Gerra (1914-1918)

Hildakoak, guztira: 20 milioi inguru

Hildako militarrek: 8.5 eta 10 milioi artean Hildako

zibilak: 7 eta 12 milioi artean

4. Bigarren Mundu Gerra (1939-1945)

Hildakoak, guztira: 70 eta 85 milioi artean

Hildako militarrek: 21 eta 25 milioi artean Hildako

zibilak: 50 eta 55 milioi artean



5. Gerra Hotzaren garaia (1947-1991)

Berez gatazka globalik izan ez zen arren, bai AEB eta SESB potentziek finantzatu edo babestutako gerra ugari.

Hildakoak, guztira: 10 eta 20 milioi artean

Hildako zibilak: guztien arteko % 50 eta % 70 artean

6. XXI. mendeko gatazkak


Hildakoak, guztira (hildako militarrek eta zibilak): 1.5 eta 2 milioi artean, kontuan hartuta, besteak beste, Afganistango Gerra, Irakekoa, Siriakoa zein Yemengoa, bai eta Ukrainako gatazka.

Hildako zibilak: 600.000 eta 1 milioi zibil artean

Hildako militarrek: 500.000 eta 1 milioi artean

Zaurituak: Hainbat milioika pertsona, zibilak zein militarrek. Lekualdatuak: 80 milioi pertsona inguruk aldatu behar izan du bizitokia

Muertes militares versus muertes civiles en Guerras



Lan-proposamena.

Bikoteka, adierazi zer iradokitzen dizkizueten datu horiek, eta idatzi testu txiki bat bien artean, gerren aurkako jarreraren oinarritua eta jarrera horrekin konprometitua.

Bere garaiari aurre hartu zioen izan zen Stanley Kubrick; ospea eman zioten, nola estilo paregabeak, baita egin zituen filmen sakontasun psikologikoak ere. Bere ibilbide artistikoan esperimentaziora jo zuen Kubrickek, eta genero sorta zabal batean aritu zen, esaterako zientzia-fikzioan (horra hor 2001: espazioko odisea filma, 2001: A Space Odyssey ingelesez) eta beldur psikologikoan (Distira, The Shinning ingelesez). Bere lan guztien ezaugarri nagusiak zinematografia zaindua, narratiba konplexuak eta hausnarketara gonbidatzen duten gai probokatzailak dira.

Aintza bideak (Paths of Glory ingelesez; Senderos de gloria gaztelaniaz) Kubricken film antibeliko sendo eta serioa da, Lehen Mundu Gerran kokatua. Misio suizida bat egiteko agindu dieten agndu dieten soldadu frantses talde baten gorabeherak jarraitzen ditu filmak. Misioen huts egin ondoren, soldadu taldeko hiruri koldarkeria-salaketa leporatu diete bidegabe. Dax koronela (Kirk Douglasek interpretatua) jo eta ke arituko da indar guztiekin bere gizonen alde, eta aurre egingo die botere militar zentzugabeari eta hierarkiaren ustelkeriari. Gerraren bidegabekeria eta krudelkeriaren aurkako oihu desesperatu eta etsia da filma.

Oinarrian Humphrey Cobb-ek idatzitako eta 1935ean argitaratutako Paths of Glory eleberria du. Benetako gertakarietan oinarritutako liburua da, eta gerraren basakeria eta zentzugabekeria salatzen ditu. Esteka honetan gaztelaniazko azpitituluekin ikusi daiteke filma: <https://ok.ru/video/1881555274357>





Guerra **[Residente]**

Bideoklipa ikusteko, sakatu hemen

1981eko abuztuaren 27an, osteguna, 36 emakumek Cardiff (Gales) eta Berkshire (Ingalaterra) bereizten dituen 120 miliako (193 Km) distantziari ekin zioten oinez, bigarren puntu horretan dagoen Greenham Common base militar amerikarrera bidean, helburu argi batekin: Sobietar Batasunera begira lau ojibako 96 misil nuklear instalatzeko gobernuaren xedea galaraztea. Arma bereziki bereziki suntsigarriak ziren, ojiba bakoitza bi milioi pertsona hiltzeko gauza baitzen. Emakume horien martxak hamar egun iraun zuen, eta haietako lau —belaunaldi batzuk sufragista ingelesek lehenago egin zuten bezala—, kateatu egin ziren, kasu honetan base militarreko hesian, hartara Gobernuari eskatzeko beraiekin gai nuklearrari buruz eztabaida zezatela, telebistan, auzi nuklearraren inguruan. Gobernuak uko egin zionez eskariari, emakumeek base militarren aurrean behin betiko instalatzea erabaki zuten. Horrela sortu zen Greenham Commoneko kanpamentua, 80ko hamarkadako arma nuklearren aurkako herri borrokaren benetako ikonoa. 1982an, Margaret Thatcherren gobernu goren-gorenean zegoela, kanpamentu soilik femeninotzat jo zuten bertan zirenek.

Bi izenez ezagututako mugimendua: Lurreko Bizitzaren aldeko Emakumeak (Women for Life on Earth, ingelesez), edo Greenham Commoneko emakumeak.



Jeneral jauna, zure tankea sendoa da,
basoa birrintzen du, eta ehun gizaki zanpatzen ditu.
Baina akats bat dauka, jeneral jauna:
gidaria behar du.

Jeneral jauna, zure bonbarderoak indar handia du,
ekaitza baino azkarragoa da, eta elefanteak baino zama
handiagoa garraiatzen du.
Baina akats bat dauka, jeneral jauna:
mekanikaria behar du.

Jeneral jauna, gizakia oso da baliagarria,
hegan egin dezake, hil egin dezake.
Baina akats bat dauka, jeneral jauna:
gizakiak pentsatu egin dezake.

B. Brecht

(Itzulpena: Mario Unamuno, Aitor Arana
eta Harkaitz Canoren bertsioetan oinarrituta)



Ezkerreko bi argazkiek eragin handia izan zuten iritzi publikoan; izan ere, elikatu egin zuten Vietnamgo gerraren, bonbardaketen basatien eta AEBen inbasioaren aurkako mugimendua. Manifestazioak eta mobilizazioak izan ziren, baita intsumisio-mugimenduak eta desertzioaren aldekoak ere.

Presio hori AEBetan ez ezik, European ere zabaldu zen.

Garaipen militarra lortzeko ezintasunak, ondoz ondoko porrotek eta iritzi publiko gero eta kritikoagoak erretira militarra eta Pariseko negoziatioetara bideratu zituzten AEBak.

My Laien gerra krimenen eta sarraskiaren ikerketak presio hori indartu zuen (beheko bideoa)



Non hasten da gerra?

Estatu Batuetan, "konplexu militar-industrial" esamoldeak gobernu estatubatuarraren, bere indar armatuen eta defentsa-industriaren arteko harreman estu eta elkarren menpekoa adierazten du. Dwight D. Eisenhower presidentek zabaldu zuen kontzeptua 1961ean, agurreko hitzaldian; bertan, politika nazionalan eragin zezakeen industria militar boteretsu baten arriskuez ohartarazi zuen.

Ordutik aurrera, konplexu militar-industrialak hazi besterik ez du egin: gobernuak kontratu izugarri aberatsak eskaini dizkie Lockheed Martin, Raytheon, Boeing eta beste enpresa batzuei. Lotura horrek Estatu Batuen ekonomiari, politikari eta herrialde horrek mundu zabalean duen eragin-indarrari eragiten die; izan ere, defentsa-industria enpleguaren zein teknologia aurreratuaren iturri handienetako bat da herrialde horretan.

Ukraina eta Errusiako gatazkan, Estatu Batuetakoak dira arma-enpresa nagusienak: Lockheed Martin, Raytheon, Boeing, Northrop Grumman eta defentsaren alorreko beste enpresa erraldoi batzuk azken belaunaldiko armak eskuratzen dizkio Ukrainari, esaterako Javelin misilak eta Patriot aire-babes sistema. NATOren beste aliatu batzuek ere asko lagundu dute, baita Europar Batasuneko herrialdeek ere; hor daude, esaterako, oraindik ere kide ez den Turkiako Bayraktar droneak, eta Mendebaldeko Europako zenbait artilleria sistema. Errusiak ere, bestalde, bere aliatuengana jo du, Iranera, esaterako, droneak eta irismen laburreko misil balistikoak lortzeko, baita bere defentsa enpresetara ere (Almaz-Antey eta Kalashnikov Concern, besteak beste Ukrainan erabiltzeko arma astunen bila.

Evolución territorial de Israel y Palestina

1947 Plan de la ONU

■ Estado judío ■ Zona internac.
■ Estado árabe



1949-67 Línea verde

■ Israel ■ Anex. por Jordania
■ Ocupado por Egipto



1967-2000

■ Israel
■ Ocupado por Israel




2000-act.

■ Israel ■ Palestina
■ Ocupado por Israel



Israel eta Palestinaren arteko gatazkan, Israelek 3.8 milioi dolar inguru jasotzen ditu urtero AEBetako laguntza militar gisa (horrek Israelen defentsa-beharrizan gehienak asetzen ditu), batetik AEBetatik egindako arma-horniduretan, eta bestetik, kontratu garrantzitsuen bidez, esaterako Lockheed Martinekin (F-35 hegazkinak), Boeingekin eta Raytheonekin (misilak jaurtitzeko sistemak eta misilen aurkako Iron Dome babes-sistema).

Horrez gain, Alemania ere hornitzaile garrantzitsua du Israelek, batez ere ThyssenKrupp enpresak ekoizten dituen Dolphin itsaspekoen bidez. Europako beste herrialde batzuek ere funtsezko elementuak ematen dizkiote Israeli, esaterako Italiak eta Erresuma Batuak, nahiz eta herrialde horietako batzuetan armen salmenta murrizteko edo geldiarazteko barne-presioak dauden, Gazako gatazkaren ondorioz. Errusiak ere laguntzen die aliatu dituen Irani eta Libanon diharduen Hezbola talde armatuari, batez ere drone eta misilen teknologia emanez, hartara eskualdeko tentsio etenik gabeari erantzun nahian, eta Ekialde Hurbileko testuinguru geopolitikoan aliatu duen Siriari laguntzeko.



Objeto del Contrato: Suministro de 168 sistemas de misiles contra carro S
Público

- Descripción Según lo indicado en el PCAP
- Valor estimado del contrato 285.070.127,6 EUR.
- Presupuesto base de licitación

- Importe 287.445.712 EUR.
- Importe (sin impuestos) 237.558.439,67 EUR.

- Clasificación CPV
- 35622600 - Misiles guiados anticarro.

- Plazo de Ejecución
- Del 30/11/2023 durante 55 Mes(es)

- Lugar de ejecución
- Subentidad Nacional Madrid
- Código de Subentidad Territorial ES300

Defentsa-azokak?
[Informazio gehiago hemen](#)

10. artikulua.– Garapen jasangarrirako politiken koherentzia.

“4.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, ekonomia sustatzeko politketan, ez die laguntzarik emango armamentua edo erabilera militarreko teknologia ekoizten, merkaturatzen eta finantzatzen diharduten pertsona fisiko edo juridikoei”.

3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarakoa eta Elkartasunerakoa.



Armas
eusko label
para la *guerra*



**Mujeres contra la guerra-
Emakumeok gerraren aurka**

1835 Me gusta • 1995 seguidores





Posted 28 June, 2024 by Gasteizkoak in Armagintza / Industria militar, Gastu militarra / Gasto militar, Gudak / Guerras, Militarismoa / Antimilitarismoa

3136

BILATU / BUSCAR

Buscar

SATLANTIS Y LA NUEVA INDUSTRIA MILITAR VASCA QUE FABRICA LAS GUERRAS

Tanto inicialmente en *Argia* (en euskera), como posteriormente en *El Salto* (en castellano)
En este análisis queremos profundizar en otros aspectos relacionados con Satlantis, porqu


CENTRE DELÀS
D'ESTUDIS
PER LA PAU

INVESTIGACIÓN
Y ACCIÓN
POR LA PAZ
Y EL DESARME



STOCKHOLM INTERNACIONAL
PEACE RESEARCH INSTITUTE

El recurso independiente sobre la seguridad mundial

Buscar en el sitio 



Sakatu ikonoa,
eta *Críticas a
Israel por los
ataques contra
las fuerzas de
paz en el Líbano*
bideoa ikusiko
duzu
(gaztelaniaz)



Bigarrenik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak berak, 28. artikuluan, oinarri oso garrantzitsua ematen du bakerako eskubidea giza eskubide gisa aitortzen duela baieztatzeko. Hauxe dio artikuluko horrek: "Pertsona orok du eskubidea halako ordena sozial eta nazioartekoa ezar dadin, non Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko diren".

Bakerako Giza Eskubidearen Aldarrikapen Unibertsala

1. artikulua.– Titularrak

1. Pertsonak, taldeak eta herriak bake zuzen eta iraunkorra izateko eskubide besterenezina dute. Bakea da mundu osorako onartutako giza eskubide guztiak baliatzeko baldintza, baita garapenerako eta ingurumenerako eskubideak ere.

2. Bakerako giza eskubidea besterenezin, unibertsal eta zatiezina da, beste eskubide batzuekin harremanetan dago, eta horiekin elkarmenpekotasunezko harremanak ditu. Bakerako giza eskubidea inolako bereizkeriarik zein diskriminaziorik gabe ezarri behar da.


Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (DIH) nazioarteko zuzenbide publikoaren adar bat da; bere helburua gatazka armatuen ondorioak mugatzea da. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen arabera, DIHk borroketan parte hartzen ez duten pertsonak babesten ditu, eta gerra egiteko bitarteko eta metodoak mugatzen.

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak gerrakrimentzat jotzen dira. Horien artean daude, besteak beste, tortura, eta baita zibilen zein helburu militarrek ez diren ondasun zibilen aurka nahita egindako erasoak ere.

Zenbait arma motaren erabilera debekatuta dago, baita gerran ere, sufrimendu indiskriminatu edo lazgarria eragiten dutelako. Arma horien artean daude, esaterako, pertsonen aurkako minak eta arma kimiko zein biologikoak.

Horrez gain, gaixoak eta zaurituak artatu beharra ezartzen du DIHk, baita soldadu zaurituak ere, DIHren arabera horiek ere eskubideak baitituzte.

Jendea bahitzea eta pertsonak legez kanpo konfinatzea, deportatzea edo lekualdatzea ere DIHren aurkako egintzak dira.



Nazio Batuen Gutuneko [23. artikulua](#) arabera, "Segurtasun Kontseilua Nazio Batuetako hamabost kidek osatuko dute".

15 kidek osatzen dute Segurtasun Kontseilua:

- ◆ Bost kide iraunkor, beto eskubidea dutenak: Txina
 - Frantzia
 - Errusiako Federazioa
 - Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma
 - Batua
 - Estatu Batuak
- ◆ Hamar kide ez iraunkor; horietatik bost Batzar Nagusiak aukeratzen ditu urtero, bi urteko epea betetzeko.




Sakatu ikonoan, eta NATOren bilakaera ikusi ahalko duzu, mapa batean islatuta.



El Eje de la Resistencia

Miembros



[Cartografía](#) [Geopolítica](#) [Oriente Próximo y Magreb](#)

El mapa del Eje de la Resistencia: Hamás, Hezbolá y otros aliados de Irán

Formada por varias organizaciones paramilitares y gobiernos de Oriente Próximo, esta alianza militar y política destaca por su posicionamiento antiisraelí, antiestadounidense y antisaudí

“[...] itotzen ari zela ohartu nintzen.

Ametsero, ahalke,
laguntza eske dakusat, hilzorian.

Zuk zeuk ere, ametsetan,
jaurti genuen gurdiaren atzetik oinez zoazela,
haren begiak zimeltzen,
deabru akituaren haren aurpegi eroria ikusiko bazenu:
zuk zeuk ere entzungo bazenu
haren birika gaixotik, eztul bakoitzeko, odola ahotik borborka,
minbizia bezain lizun,
hizkuntza errugabeetako zauri sendaezinen gonbitoak bezain mikatz.
Lagun, ez zenieke ospe eta loria egarriz dagozen mutikoei
horren sutsuki gezur zahar hura sinetsaraziko: "*Dulce et decorum
est
pro patria mori*".

Dulce et Decorum est poemaren zati bat. Wilfred Owen soldaduak idatzi zuen, Antzinaroko Horazio poetaren esaldi ospetsu hau kritikatu asmoz: "Gozo eta ederra da, ohorea, aberriaren alde hiltzea". Esaldi hori erruz baliatu izan da gerretan —bereziki Lehen Mundu Gerran— gazteen mobilizazioa justifikatzeko.

Itzulpena: Gotzon Barandiaran, [esteka honetan](#)



GABONETAKO SU-ETENA


Horrela deitzen zaio 1914ko Eguberri inguruan, Munduko Lehen Gerran, mendebaldeko frontean gertatu ziren su-eten ez ofizial sorta bati.



Gerra Hotza: itun politiko-militarrak, eta horien pertzepzioa




- Pacto de Varsovia** 1955-1991
-
- OTAN** 1945-
-
- SEATO** 1954-1977
-
- CENTO** 1955-1979
-
- ANZUS** 1951-



Percepción de la URSS del cerco occidental

Percepción occidental del expansionismo soviético



Gerra emakumeen aurka

Lehen Mundu Gerra. Women's International League for Peace and Freedom (WILPF): 1915ean sortu zuen erakundea emakume talde batek, gerra nola geldiarazi eta bakea nola sustatu eztabaidatzeko Hagan bildu zirelarik. Emakume horietako asko gatazka eragin zuen nazionalismoaren eta militarismoaren aurka zeuden. WILPF indarrean gaur egun ere, eta armagabetzearen, justizia sozialaren eta antzeko alorretan dihardu.

Bigarren Mundu Gerra. Bakearen aldeko Mugimenduko Amak: Europako hainbat herrialdetan eta Estatu Batuetan emakume taldeak antolatu ziren, bereziki amek osatuak, bake eskean eta eskalada militarra gelditzearen alde. Emakume horiek funtsezko lana egin zuten biktimei eta errefuxiatuei laguntzeko sareei eusteko zereginean. WILPFek ere presentzia handia izan zuen aldi horretan, nahiz erregimen autoritarioen pean zeuden herrialde batzuetan errepresio jasan.

Gerra Hotzaren garaia. Greenham Common Women's Peace Camp: 1981ean, emakume britainiar talde batek kanpamendu bat ezarri zuen AEBetako misil nuklearrak hartzen zituen Greenham Common izeneko aire-basearen aurrean. Babearen aldeko Emakumeak (Women Strike for Peace, WSP) 1961ean sortutako mugimendu estatubatuarra izan zen, arma-eskaladaren eta Estatu Batuek Vietnamen aritzearen aurka protestatzeko.




Emakumeak gerren aurka

Balkanetako gerrak. Beltzez Jantzitako Emakumeak: 1991ean Belgraden eratu zen, Jugoslavia ohiko gerretako ankerkerien kontra protestan.

GAUR EGUN INDARREAN DAIREN GATAZKAK

Ukraina/Errusia gerra (2022-gaur egun) Errusiar Emakumeak Gerraren Aurka: Errusian sortu zen mugimendua, Ukrainaren inbasioaren aurka protestatzeko asmoz. Emakume horiek manifestazioak egin dituzte, sarri askotan gobernuaren errepresioari aurre eginez. Ukrainako Bakearen aldeko Emakumeak: Ukrainako zenbait emakume-taldek aldarri egin dute desarmaren eta gatazka modu baketsuan konpontzearen alde.

Afrikako gerrak. Women for Peace Network (WPN): emakume afrikarren zenbait erakundek (esaterako, Liberian Leymah Gbowee buru zuena) berebiziko garrantzia izan dute Liberiako gatazka zibilaren konponbidean. FEMNET (African Women 's Development and Communication Network; Afrikako Emakumeen Garapenaren eta komunikazioaren aldeko Sarea, euskaraz): sare honek bakerako deiak egin ditu eta Afrikako hainbat herrialdetako gatazka armatuak gaitzetsi, gerrak emakumeengan eta haurren duen eragina nabarmenduta.



Poner fin al
#GenocidioEnGaza

es una
Cuestión Feminista:

**Llamamiento de las
Mujeres
Palestinas**



"Banka Armatu" esamoldearekin izendatzen dira armagintzan inbertitzen duten finantza-erakundeak, dela armak ekoizten dituzten enpresak finantzatuz, dela sektore horri lotutako finantza-produktuak merkaturatuz. Erakunde horiek armak fabrikatu eta esportatzera bideratzen dituzte funtsak, halako moduan non, zeharka bada ere, gatazka armatuak iraunarazten, giza eskubideak urratzen eta mundua ezegonkortzen laguntzen dute.



Banka Armatuaren aurkako kanpaina Espainiako hainbat erakundek bideratzen dute, besteak beste hauek: Centre Delàs d'Estudis per la Pau, SETEM, Justicia y Paz.

Bankuek armetan egindako inbertsioei buruzko urteko txostenak argitaratzen dituzte, adibidez, "BBVA y Santander financian armas nucleares" izenekoak, gaztelaniaz (BBVAk eta Santander Bankuak arma nuklearrak finantzatzen dituzte).

Kanpaina horretan, banku inplikatueta akziodunen batzarretan egiteko ekintzak antolatzen dituzte, hala nola esku-hartze publikoak, armen finantzaketan duten rola salatzen.



Banka Armatuaren kontrako intsumisio-mugimendu bat ere sortu izan da, arma-industria babesten duen finantza-sistema salatu, hari boikota egin, eta hura eraldatzeko herri-erantzun gisa. Mugimendu hori lau elementu hauetan oinarritzen da:

- finantza-gardentasuna;
- boikota bankuei;
- alternatiba etikoak;
- gizarte-mobilizazioa.

Un1989ko otsaileko "Intsumisoen Manifestua" Euskal Herriko Intsumisio Mugimenduaren testu esanguratsua da, argi eta garbi bereizten baititu intsumisioa eta kontzientzia-eragozpena.

Hauxe adierazten zuten intsumisoek agiri hartan:

"Guk, Armadan sartzeko aginduak jasotzen ari garen kontzientzia-eragozleok... adierazten dugu: 1) Kontzientzia-eragozpena eginez, uko egiten diogula Soldadutzari".

Manifestu horrek funtsezko bereizketa ezarri zuen kontzientzia-eragozpenaren eta intsumisioaren artean.


Kontzientzia-eragozpenak soldadutzari ukoa arrazoi pertsonal edo erlijiosoetan oinarritzen zuen bitartean, intsumisioa haratago zihoan, soldadutzari bezala haren ordezkari gizarte-prestazioari ere uko egitea inplikatzeko zuen neurrian; hartara, intsumisioak indarreko legedia desafiatu zuen, nahitaezko soldadutzaren abolizioaren bila.



Soldadutzaren eta intsumisioaren istorio eta pasadizoak (gaztelaniaz):

https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/antimilitaristas-moc-kakitzat-gobierno-militar-insumision-ejercitos_1_5024128.html

Intsumisioa soldadutzaren aurreko desobediencia zibila proposatzen zuen mugimendu antimilitarista bat izan zen, Espainian praktikatu zena, 80ko hamarkadaren amaieratik 2001eko abenduaren 31ra bitartean (egun horretan kendu zen derrigorrezko soldadutza).





Egun batetik hurrengora, eta aurrez ezer jakinarazi gabe, Espainiako Gobernuak aldatu egin du Saharari buruzko jarrera, eta haren kolonia izan zena Marokok autonomiatzat hartzea onartu. Erabaki horrek nazioarteko legedia hausten du, batetik, eta, bestetik, muzin egiten dio Espainiari —potentzia administratzaile den aldetik— saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea bermatzeko dagokion erantzukizunari.

(informazio gehiago, gaztelaniaz)

Irtenbidea Sahara zatitu eta banatzea bada, aitortu behar da hori, funtsean, saharar herriak autodeterminazio eta independentziarako duen eskubidea ukatzea dela.

Mendebaldeko Saharako gatazka ez da lurralde-gatazka sorta huts bat; egiaz, hainbat hamarkadatan bere lurra eta subiranotasuna berreskuratzeko borrokatu duen herri baten deskolonizazioa da.

Zatiketa plan horrek nazioarteko zuzenbidearen oinarriko printzipioak urtatzen ditu, bai eta lurraldearen etorkizuna erabakitzeko erreferenduma eskatu duten NBEn ebazpen ugari ere.

Gainera, zatiketak eskualdeak dagoeneko bizi dituen tentsioak areagotzeko mehatxua dakar berekin.

Marokok Mendebaldeko Sahararen gainean duen kontrol militarizatuak giza eskubideen urraketa larriak, protesta baketsuen debekua eta eskualdeko baliabide naturalen ustiapena eragin ditu.

Lurraldea zatitzeak indarkeria zein militarizazioa areagotzea ekarriko luke; egoera hori eskualdeko gainerako estatuetara zabaldu daiteke, halako moduan non Magrebeko eskualde zabalena ezegonkortzea ekarriko luke.



**EL PINTOR ESPAÑOL REFLEXIONA CON CRUDEZA SOBRE SOBRE EL PAPEL DEL ARTISTA
«COMO ESPECTADOR EMOTIVO DE SU ENTORNO»**


P.D. «La indiferencia nos hace cómplices»



Registro fotográfico «El mercado de la muerte»
Foto: Gentileza Javier de Villota

Mercado de la Muerte,

Javier de Villotaren lana



Gatazka ikusezinak eta horien eragin globala

Munduko titularrak gatazka mediatikoenetan zentratzen diren bitartean, Afrikan eta Asian dozenaka gerra oharkabeen igarotzen dira, eta beren atzetik milioika desplazamendu, ahaztutako biktimak olioztatuak eta arpilatutako baliabideak uzten dituzte. Beste gerra isil batzuek, komunitateak suntsitzeaz gain, desberdintasun globala eta axolagabetasuna iraunarazten dituzte. Zenbat eragin izan dezake gizarte kontziente batek ezkutuko tragedia horiek ikusaraztean?



Gerra ekologikoa eta kapitalismoa

Natura, bere handitasun isilean, gerra-zelai bihurtu dugu. Kapitalismo bortitzak basoak, ibaiak eta mineralak ustiatzen ditu, bai planeta bai bertan bizi direnak suntsitzen dituzten gatazka armatuak elikatuz. 'Gerra ekologikoa' ez da tankeekin libratzen, bulldozerrekin, hondakinekin eta bizitza ezagutzen ez duen aurrerabide batekin baizik. Posible al da Lurrarekiko bakea ere ez den bake iraunkorra?



Teknologiak eta hedabideek gatazketan duten eragina

Aro digitalean, gerra armekin ez ezik, informazioarekin ere libratzen da. Fake news-ek egia desitxuratzen dute, bideojokoek indarkeria normalizatzen dute eta adimen artifizialak gerra-estrategiak planifikatzen ditu. Bitartean, hedabideek suntsipena justifikatzen duten narrazioak moldatzen dituzte. Borroka-eremu berri honetan, teknologiaren kontrola boterearen kontrola da. Nola indargabetu dezakegu ziklo arriskutsu hau?